

MERKATARITZAKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN AURKIBIDEA.

ZIOEN AZALPENA.

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua. *Arauaren xedea.*

2. artikulua *Arauaren helburuak eta printzipio gidariak.*

3. artikulua *Aplikazio-eremua, aplikazio osagarria eta bazterketak.*

4. artikulua *Definizioak:*

1. *Txikizkako merkataritza.*
2. *Saltoki singularra.*
3. *Merkataritza-establezimendu handiak.*
4. *Merkataritza-establezimendua handitzea.*
5. *Merkataritza-espazioa.*
6. *Merkataritza-azalera erabilgarria.*
7. *Azken kontsumoko ondasunak.*
8. *Merkataritza-formatuen tipologia.*
9. *Kanpo-efektu negatiboen kontzeptua.*
10. *Komenentziako dendak.*
11. *Bizitegitarako hiri-bilbea.*
12. *Lehendik dagoen mugikortasun-azpiegituraren oinarrizko zerbitzu-sarea.*
13. *Landa-merkataritza hibridoa.*
14. *Saltokirik gabeko eremuak.*
15. *Hurbileko merkataritza.*
16. *Azken miliako garraioa.*
17. *Zigarreta elektronikoa, bapeagailua edo lurruneztagailua.*
18. *Edari energetikoa.*

II. TITULUA: MERKATARITZA-JARDUERA GAUZATZEA.

I. KAPITULUA. Merkataritza-jarduera.

5. artikulua *Txikizkako merkataritzaren edo txikizkako merkataritza-jardueraren kontzeptua.*

6. artikulua *Handizkako merkataritza-jardueraren kontzeptua, eta handizkako eta txikizkako jarduera aldi berean gauzatzea.*

7. artikulua. *Entitate kooperatiboak eta hirugarrenetikiko eragiketak.*

8. artikulua *Txikizkako merkataritzaren jardueretan aritzeko baldintzak.*

9. artikulua *Merkataritza-jardunbideak eta indarrean dagoen legedia.*

10. artikulua *Merkataritzan aritzeko debekuak eta mugak.*

II. KAPITULUA. Merkataritza-establezimenduak.

11. artikulua *Merkataritza-establezimenduen kontzeptu orokorra.*

12. artikulua *Merkataritza-establezimenduen sailkapen orokorra.*

13. artikulua *Merkataritza-establezimendu kolektiboak.*

III. KAPITULUA. Merkataritza-establezimenduak jartzea.

1. atala. Printzipio orokorrak.

14. artikulua. *Merkataritza-establezimenduak jartzeko bete beharreko printzipioak.*

15. artikulua *Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko eta handitzeko baldintzak.*

2. atala. Merkataritza-erabileraren lurralde-antolamenduari eta hirigintza-antolamenduari buruzko araupetzea.

16. artikulua. *Lurralde-antolamenduko tresnak.*

17. artikulua. *Udalen hirigintza-plangintza.*

18. artikulua. *Merkataritzako erakartze eta antolamendurako plana*

3. atala. **Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko edo handitzeko lurraldeko merkataritza-txostena tramitatzea.**

19. artikulua *Merkataritza-establezimendu handiak jartzea edo handitzea, behar den lurraldeko merkataritza-txostena tramitatzearen bidez.*

20. artikulua *Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko edo handitzeko prozedura eta txostenen irismena.*

21. artikulua *Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko edo handitzeko merkataritza-txosten espezifikoaren eskaera tramitzeko behar den dokumentazio teknikoa.*

22. artikulua. *Merkataritza-establezimendu handia jartzeari edo handitzeari buruzko txosten positiboa, negatiboa edo baldintzatua.*

23. artikulua. *Merkataritza-establezimendu handi bat instalatzeko edo handitzeko lurraldeko merkataritza-txostena izapidetzeagatik ordaindu beharreko tasa*

III. TITULUA. SALMENTA BEREZIAK ETA HAIEN KANPO-EFEKTUAK.

24. artikulua *Urrutiko salmentak eta merkataritza elektronikoa.*

25. artikulua *"Dark store" edo denda ilunak urrutiko salmentaren modalitate gisa.*

26. artikulua *Merkataritza elektronikoaren kanpo-efektu negatiboak entregak hiri-eremuetan egitearen ondorioz.*

27. artikulua *Salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria.*

28. artikulua *Salmenta ez-sedentario edo ibiltariaren udal erregulazioa.*

29. artikulua *Merkataritza-jarduera ez-sedentarioa gauzatzeko baimenaren identifikazio-txartela.*

30. artikulua *Salmenta ibiltaria non egin behar den.*

31. artikulua *Salmenta ibiltaria dela-eta, hurbileko salmenta eta/edo zuzeneko salmenta sustatzea.*

32. artikulua *Salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria antolatzea.*

33. artikulua *Salmenta automatikoa.*

34. artikulua *Jendaurreko enkantean egindako salmenta.*

35. artikulua *Aukera-azoketako salmenta.*

IV. TITULUA. Salmenta sustatzeko jarduerak eta salmenta debekatuak.

I. KAPITULUA. Salmenta-sustapenen alderdi komunak.

36. artikulua *Salmenta-sustapenaren kontzeptua.*

37. artikulua *Printzipio orokorrak.*

38. artikulua. *Prezio murriztuaren eta aurreko prezioaren informazioa.*

II. KAPITULUA. Salmenta-sustapen motak.

39. artikulua. *Salmenta-sustapenen tipologiak.*

40. artikulua *Merkealdiko salmenta.*

41. artikulua *Saldoko salmenta.*

42. artikulua *Likidazioko salmenta.*

43. artikulua *Salmenta oparidun edo primaduna.*

44. artikulua *Eskaintzetako eta sustapenetako salmentak.*

III. KAPITULUA. Salmenta debekatuak: galerazko salmentak eta salmenta piramidala.

45. artikulua *Galerazko salmentak.*

46. artikulua *Salmenta piramidalak.*

V. TITULUA: MERKATARITZA-ORDUTEGIAK

I. KAPITULUA. Merkataritza-ordutegien araubide orokorra.

47. artikulua *Ordutegi-askatasuna eta ordutegiak agerian jartzeko betebeharra.*

48. artikulua *Lanegunetako ordutegia: eguneko maximoa eta asteko maximo globala.*

49. artikulua *Igande eta jaiegunetan irekitzea.*

50. artikulua *Irekiera librekotzat jotzen diren igande eta jaiegunen urteko egutegia ezartzeko prozedura.*

II. KAPITULUA. Merkataritza-ordutegien araubide berezia.

51. artikulua. *Ordutegia ezartzeko askatasuna duten saltokiak.*

52. artikulua *Merkataritza-ordutegiei buruzko araudi espezifikoak duten saltokiak.*

53. artikulua *Kultura- eta turismo-produktuak soilik saltzen dituzten establezimenduak.*

54. artikulua *Turista-olde handiko eremuak finkatzea.*

III. KAPITULUA. Edari alkoholduak saltzen dituzten merkataritza-establezimenduak.

55. artikulua. *Edari alkoholduak saltzeko ordutegia mugatzea.*

VI. TITULUA: HURBILEKO MERKATARITZA BABESTEKO ETA SUSTATZEKO NEURRIAK.

56. artikulua *Hurbileko merkataritza sustatzea.*

57. artikulua *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jarduketak hurbileko merkataritza sustatzeko.*

58. artikulua *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jarduketak landa-eremuan hurbileko merkataritza sustatzeko eta babesteko.*

59. artikulua *Hurbileko merkataritza sustatzeko entitate laguntzaileak.*

VII. TITULUA: NAFARROAKO MERKATARITZA KONTSEILUA

60. artikulua *Nafarroako Merkataritza Kontseiluaren izaera, atxikipena eta eginkizunak.* **61. artikulua** *Osaera eta erregelamendu bidezko garapena.*

VIII. TITULUA: IKUSKATZE-FUNTZIOA ETA ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA.

I. KAPITULUA: Txikizkako merkataritzaren ikuskaritza.

62. artikulua *Merkataritzaren ikuskapena eta ikuskapen plana.*

63. artikulua *Ikuskaritzako langileak eta haien ahalmenak.*

64. artikulua *Ikuskapen aktak.*

II. KAPITULUA. Zehapen-araubidea.

1. atala. Arau-haustek eta erantzuleak.

65. artikulua *Xedapen orokorrak.*

66. artikulua *Arau-hauste arinak.*

67. artikulua *Arau-hauste astunak.*

68. artikulua *Arau-hauste oso astunak.*

69. artikulua *Pertsona erantzuleak.*

2. atala. Zehapenak, neurri osagarriak eta isun hertsatzaileak.

70. artikulua *Zehapenak.*

71. artikulua *Zehapenen mailaketaren aldaketa.*

72. artikulua *Neurri osagarriak: aldi baterako itxiera eta behin betiko itxiera.*

73. artikulua *Arau-hauste edo zehapenen zehaztapenak.*

74. artikulua *Zehapenak zehaztea.*

75. artikulua *Isun hertsatzaileak.*

3. atala- Zehapen-prozedura.

76. artikulua *Zehatzeko ahala egikaritzea.*

77. artikulua *Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.*

78. artikulua *Zehapen-prozedura.*

79. artikulua *Organo eskudunak.*

Lehen xedapen gehigarria. *Foru agindu bidez zehapenak eguneratzea.*

Bigarren xedapen gehigarria. *Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 56.1 artikulua aldatzea.*

Lehen xedapen iragankorra.

Bigarren xedapen iragankorra.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Laugarren xedapen iragankorra.

Azken xedapenetako lehena.

Azken xedapenetako bigarrena.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

ZIOEN AZALPENA.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskusiboa dauka barneko merkataritzaren arloan, deusetan galarazi gabe prezioen politika orokorra, Estatuko lurraldearen barneko ondasunen joan-etorri librea eta lehiaren defentsari buruzko legeria, hori guztia Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta

Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluan zehaztutako gaikuntzaren ondorioz. Aipatutako arauaren 44.1 artikuluari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskusiboa du, halaber, lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren eta etxebizitzaren arloan, eta, lege horren 57. artikulua araber, Nafarroari dagokio, Estatuaren oinarritzko legeriaren esparruan, ingurumenaren eta ekologiaren arloko legeak garatzea eta betearaztea.

Gaur egun indarrean den Merkataritzari buruzko 17/2001 Foru Legea, uztailaren 12koa eta Nafarroan merkataritza arautzen duena, apirilaren 6ko 6/2010 Foru Legearen bidez aldatu zen, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko. Lege hori indarrean jarri zenetik 23 urte igaro dira, eta tarte horretan izan diren inguruabarrek (sozialak, ekonomikoak, hirigintzakoak, lurralde-antolamendukoak eta ingurumenekoak) beharrezko egin dute txikizkako merkataritza-jardueraren erregulazio administratibo bat egitea berriz. Lehenik eta behin, Nafarroako Foru Komunitatea zaharragoa da eta populatuago dago; kalkuluen arabera, 2037. urtean 736.784 biztanle izanen dira, batez besteko adina 43,9 urtetik 45,2 urtera aldatuko da, eta 65 urtetik gorakoak 16 urtetik beherakoen bikoitza izanen dira. Bigarrenik, hurbileko merkataritza murriztu egin da, eta, ondorioz, ugaritu egin dira hiri-inguruneetan hutsik dauden lokalak. Azkenik, ingurumen-trantsizioak, klima-aldaketaekin batera, kontsumo-balioak birmoldatu ditu, eta eraldaketa-prozesu bat ireki du zenbait arlotan; besteak beste, hiri-mugikortasunean, ekonomia zirkularrean eta zero kilometroko produktuetan.

Beraz, txikizkako merkataritzaren sektoreak Nafarroako Foru Komunitatean duen garrantzi ekonomiko eta soziala dela eta, eta egungo egoera kontuan hartuta, ezinbestekoa da foru lege berri bat egitea, zeinak merkataritza-jardueraren kanpo-efektu negatiboak murriztuko baititu eta garrantzi berezia

emanen baitio herritarrei ohiko erosketak egiteko erraztasunak eskaintzeari, bereziki premiazko artikuluei dagokienez.

Foru lege honek sei titulu ditu.

I. tituluaren I. xedapen orokor batzuk ezartzen dira; xedapen horiek arauaren xedarearen definizioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan merkataritza-jarduera arautzen duten printzipio gidariak jasotzen dituzte, besteak beste. Berritasun azpimarragarriena da legegileak borondate irmoa agertzen duela Nafarroako udalerrietako bizitegi-hirigunean txikizkako merkataritza-sistema mantentzearen alde borrokatzeko, jasangarritasunaren alde eginez eta hiri-espazioa interakzio sozialerako gunetzat hartuz.

II. tituluaren II. kapituluaren I. xedapen orokor batzuk ezartzen dira; xedapen horiek arauaren xedarearen definizioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan merkataritza-jarduera arautzen duten printzipio gidariak jasotzen dituzte, besteak beste. Berritasun azpimarragarriena da legegileak borondate irmoa agertzen duela Nafarroako udalerrietako bizitegi-hirigunean txikizkako merkataritza-sistema mantentzearen alde borrokatzeko, jasangarritasunaren alde eginez eta hiri-espazioa interakzio sozialerako gunetzat hartuz.

II. tituluaren II. kapituluaren II. xedapen orokor batzuk ezartzen dira; xedapen horiek arauaren xedarearen definizioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan merkataritza-jarduera arautzen duten printzipio gidariak jasotzen dituzte, besteak beste. Berritasun azpimarragarriena da legegileak borondate irmoa agertzen duela Nafarroako udalerrietako bizitegi-hirigunean txikizkako merkataritza-sistema mantentzearen alde borrokatzeko, jasangarritasunaren alde eginez eta hiri-espazioa interakzio sozialerako gunetzat hartuz.

II. tituluaren III. kapituluaren I. xedapen orokor batzuk ezartzen dira; xedapen horiek arauaren xedarearen definizioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan merkataritza-jarduera arautzen duten printzipio gidariak jasotzen dituzte, besteak beste. Berritasun azpimarragarriena da legegileak borondate irmoa agertzen duela Nafarroako udalerrietako bizitegi-hirigunean txikizkako merkataritza-sistema mantentzearen alde borrokatzeko, jasangarritasunaren alde eginez eta hiri-espazioa interakzio sozialerako gunetzat hartuz.

beharrezkoak badira, justifikatuak badaude interes orokorreko premiazko arrazoi batengatik eta proportzionaltasun-printzipioa betetzen badute, egokiak direlako nahi den helburua lortzeko, ez doazelako horretarako behar-beharrezko denetik harago, eta, gainera, ezin direlako ordeztu emaitza bera lortzea ahalbidetzen duten neurri ez hain murriztaile batzuekin.

Lurralde-antolamendurako tresnei dagokienez, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren eta hiri trinkoaren printzipioaren ildotik, merkataritza, ahal dela, udalerrietako hiriguneetan ezartzea bultzatzen da.

Hirigintza-plangintzari dagokionez, hiri-plangintza jasangarri, inklusibo eta irisgarriaren eta lehia sustatzearen printzipioak oinarri hartuta, azpimarratzen da ezen bizitegi-erabileren eta merkataritza-jardueren zuzkidura osagarria eta bateratua egin behar dela, eta, horretarako, etxebizitza kolektiboen etxabeetan askotariko merkataritza-formatuak ezartzera behartzen da. Historikoki, zaila izan da merkataritza-operadoreen arteko lehia askea, merkatuaren akats bat dela eta, oso garestiak direlako etxebizitza kolektiboen azpiko 300 metro koadrotik gorako merkataritza-lokalak.

Merkataritzako erakartze eta antolamendurako planei dagokienez, berrikuntza garrantzitsu bat da jada ez direla nahitaezkoak izanen: tokiko autonomiaren printzipioaren ildotik, hautazkoak izanen dira.

Aipagarria da udalez gaindiko plan sektorialen ordeztu lurreko merkataritza-txosten bat ezarri izana. Txosten hori txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak tramitatu beharko du. Merkataritza-operadore berrien sarrera sustatzeko, aurrekoa baino arinagoa eta errazagoa den prozedura bat diseinatu da. Horrela, txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak leihatila bakarraren funtzioak betetzen ditu, eta hari dagokio merkataritza-establezimendu handi bat instalatzea edo handitzea onestea, lurreko merkataritza-txosten bat

prozeduraz tramitatzearen bidez. Lurraldeko merkataritza-txostenak balio du soilik aldeztu aurretik ebaluatzeko kasuan kasuko merkataritza-establezimendua jartzeak eragiten ahal dituen inpaktuak, arreta berezia jarritzaz lurzati edo orube bati hirigintzako kalifikazioa emanez neurtu ezin diren kanpo-efektuetan. Beraz, lurraldeko merkataritza-txostena hiri-plangintza jasangarri eta inklusiboaren barruan kokatzen da, barnean hartzen baititu segurtasun publikoko, mugikortasun jasangarriko, osasun publikoko, ingurumena babesteko eta hiri-ingurunea zaintzeko irizpideak.

III. tituluan, salmenta bereziak eta haien kanpo-efektuak arautzen dira.

Urrutiko salmentak eta merkataritza elektronikoa sailkatzen dira. Merkataritza elektronikoa urrutiko salmentaren modalitatez jotzen da. Titulu horretan bertan, salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria, salmenta automatikoa, jendaurreko enkantetako salmenta eta aukera-azoketako salmenta ere arautzen dira.

Berrikuntza handienak hauek dira: lehenik eta behin, "dark store" edo denda ilunak arautzen dira, eta, bigarrenik, hiri-eremuetako salgaien harrera erregulatzen da, merkataritza elektronikoaren kanpo-efektu negatiboak murrizteko asmoz. Bi kasuetan, toki entitateei eskumenak ematen zaizkie, interes orokorreko premiazko arrazoiak daudela egiaztatu ondotik, hornidura-katean jasangarritasuna bultzatzeko, eta paketeria-banaketa eraginkorra hiri-ingurune ingurumenaren errespetuarekin uztartzen saiatzeko.

Gainera, aukera-azoketako salmentak arautzen dira, entitate antolatzailearen betebeharrak zein diren argitzeko, eta, aldi berean, kontsumitzaileen eskubideak eta ekitaldi horietara joaten diren pertsonen segurtasuna babesteko.

IV. tituluan, salmenta-sustapenak eta salmenta debekatuak arautzen dira. Lehenik eta behin, salmenta-sustapenei dagozkien alderdi komun batzuk sistematizatzen dira; ondotik, salmenta-tipologia bakoitzaren erregulazioa

zehazten da, eta, azkenik, salmenta debekatuak zehazten dira. Likidazioan egiten diren salmentei dagokienez, eta administrazio-izapideak sinplifikatze aldera, berrikuntza garrantzitsu bat dago: baimenaren orde, jakinarazpena baliatuko da. Gainera, ezarri da ezen establezimenduak gutxienez 16 egun natural jarraian itxita egon behar duela obra garrantzitsuengatik likidazioko salmenta kasutzat hartu ahal izateko.

V. tituluan merkataritza-ordutegiak arautzen dira. Hala, bada, zorrozki jarraikiz Estatuko oinarritzko araudiari, testu bakarra ezarri da merkataritza-ordutegien araudirako, errazagoa izan dadin arlo hau ulertzea eta zabaltzea.

Berrikuntza garrantzitsu bat aurreikusten da; izan ere, udalerriek, ordena publikoko, segurtasuneko edo osasuneko arrazoiak direla-eta, debeku hau ezartzen ahalko diete, udal mugarte osoan eta modu uniformean, edari alkoholduak eskaintzen dituzten merkataritza-establezimenduei: debekatua izanen dute edari horiek saltzea 22:00etatik hurrengo eguneko 7:00etara, aplikatzekoa den irekitze-araudia gorabehera.

VI. tituluan, hurbileko merkataritzari laguntzeko neurriak arautzen dira. Orobat, ezartzen da zer jarduketa egingen dituzten Nafarroako administrazio publikoek landa-eremuan hurbileko merkataritza sustatzeko eta babesteko.

VII. tituluan, Nafarroako Merkataritza Kontseilua arautzen da, eta VIII. tituluan, ikuskatze-funtzioa eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea arautzen dira. Berezi nabarmentzekoa da arauak, lehen aldiz, ikuskatze-plan bat jasotzen duela. Plan horren eginkizun nagusia izanen da merkatariei txikizkako merkataritzaren arloan indarrean dagoen legeriaren berri ematea, hobeki informatuta egon daitezen eta legedi horrek zuzenean mesede egin diezaien, bai merkatariei bai kontsumitzaileei.

Arauak bi xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, bi azken xedapen eta xedapen indargabetzaile bat ditu.

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua. Arauaren xedea.

1. Foru lege honen xedea da txikizkako merkataritza, merkataritza-ordutegiak, salmenta mota jakin batzuk eta merkataritza-egituren eta -establezimenduen antolamendua eta hobekuntza arautzea.
2. Merkataritza-jardueraren administrazio-antolamenduak xede hauek izanen ditu:
 - a) Merkataritza-jarduera.
 - b) Merkataritza-establezimendu handien definizioa eta antolamendua, kanpo-efektu negatiboen alde aurreko ebaluazioan oinarrituta. Ebaluazio hori ingurumen-, lurralde-, hirigintza- eta mugikortasun jasangarriaren irizpideen arabera egingen da.
 - c) Salmenta berezien araubidea.
 - d) Sustapen-jardueren araubidea.
 - e) Merkataritza-ordutegiak.
 - f) Hurbileko merkataritzari laguntzea eta ekonomia zirkularra sustatzea.
 - g) Nafarroako Foru Komunitateko merkataritza-jarduera eta -establezimenduak ikuskatzea, informatzea eta zaintzea.
 - h) Legez ezar daitekeen beste edozein jarduera.

2. artikulua. Helburuak eta printzipio gidariak.

1. Hauek dira foru lege honen helburuak eta printzipio gidariak:
 - a) Bizitegitarako hiri-bilbean merkataritza-hirigintza indartzea eta sustatzea, eta, bide horretan, merkataritza-zuzkidurak hiri-bilbearen barruan ezar daitezen bultzatzea. Era horretan, hurbileko merkataritza eta oinezkoen

mugikortasuna sustatuko dira, eta, hala, ibilgailu motordun partikularrean eginiko eta beharrezkoak ez diren joan-etorriak ekidinen dira, kutsadura murriztuko da, eta lehendik dauden edo etorkizunean izanen diren garraio publikoko sareak erabiltzea bultzatuko da. Hori guztia, establezimendu-askatasunari eta zerbitzuak emateko askatasunari buruzko Europako eta Estatuko araudian xedatutakoaren arabera.

- b) Genero-berdintasuna indartzea.
- c) Merkataritza-operadoreen arteko lehia askea sustatzea, eta, horretarako, hiri-eremuko nahitaezko merkataritza-erreserba dimentsio heterogeneoko lokalez osatuta egon dadin sustatzea, lokalok mota guztietako merkataritza-formatuak egotea ahalbidetu dezaten, eta, beraz, saihestu daitezen saltokirik gabeko eremuak, eta, bereziki, premiazko produktuak eta egunero kontsumitzekoak direnak saltzen dituztenei dagokienez.
- d) Nafarroako Foru Komunitatean hurbiltasuneko merkataritza irisgarri, jasangarri eta inklusiboa modu aktiboan bultzatzea, kontuan hartuta bertan dagoen lurralde-testuinguru berezia. Testuinguru hori baldintzatzen dute, batetik, Iruñerrian biztanleria nabarmen metatzeak, eta, bestetik, despopulazioak eragindako lurraldeetako eremu zabaletan adinekoak nagusi izateak.
- e) Araudia sinplifikatzea eta operadoreen administrazio-kargak murriztea; operadoreen jarduera lehia aske eta leialak gidatu behar du.
- f) Hiri-banaketako logistikaren jasangarritasuna bultzatuko duten neurriak sustatzea, eta, horretarako, hiri-inguruneetan salgaiak hartzeko eta partikularrei entregatzeko eragiketen ondorioz sortzen diren kanpo-efektu negatiboak arindu daitezen bultzatzea.
- f) Udalerrien toki-autonomia sustatzea, subsidiarotasun-printzipioa kontuan hartuta. Printzipio horren arabera, eskumen publikoak, oro har,

herritarrengandik hurbilen dauden agintaritzei egokitu behar zaizkie lehentasunez.

g) Bermatzea bizitegi- eta merkataritza-erabileren zuzkidura osagarri eta bateratua.

2. Foru lege hau lehia askearen printzipioaren arabera interpretatu beharko da, bat etorritzat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauak —barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoak— xedatutakoarekin, Europako gainerako araudiarekin, eta Europako jurisprudentziaren bilakaerarekin.

3. artikulua. Aplikazio-eremua, aplikazio osagarria eta bazterketak.

1. Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan gauzatzen diren txikizkako merkataritza-jarduerei aplikatuko zaie.
2. Foru lege hau modu osagarrian aplikatuko zaie sektoreko kontrol edo erregulazio espezifikoaren pean dauden merkataritza-jarduerei.
3. Honako hauek foru lege honen aplikazio-eremutik baztertzen dira, eta berariazko araudia dute:
 - a) Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen zuzeneko salmenta nekazari eta abeltzainen eskutik. Salmenta hori Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Kanala Laburrei buruzko martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legeak edo hura ordeztzen duen araudiak arautzen du.
 - b) Artisauek beren tailerretan, azoketan eta azoka txikietan eginiko produktu-salmenta.
 - c) Finantza- eta aseguru-zerbitzuak.

- d) Ostatu-zerbitzuak, kafetegiak, tabernak, jatetxeak eta ostalaritza, oro har.
- e) Konponketako, mantentze-lanetako eta laguntza teknikoko zerbitzuak.
- f) Lanbide liberal eta kolegiatueta jardutea.
- g) Garraio-zerbitzua ematea, erabilitako garraiobidea gorabehera.
- h) Ur-, gas-, elektrizitate- eta telekomunikazio-hornidurak; azken horretan bereziki barne hartzen dira telefonia-, ahots-, irudi- eta datu-transmisioak.
- i) Turismo-zerbitzuak eta bidaia-agentzien zerbitzuak.
- j) Aisialdi- eta ikuskizun-enpresek emandako zerbitzuak, hala nola zinemek, antzokiek, zirkuek, ludotekek, haur-parkeek eta antzekoek emandakoak.
- k) Industria-eremuaren barruan, fabrikatzaileek ekoizpen-prozesuko hondakinak eta azpiproduktuak saltzea, azken kontsumitzaileentzat direnean izan ezik.
- l) Edertasun-, estetika- eta osasun-zerbitzuak. Haien barruan berariaz sartzen dira gimnasioak.

4. artikulua. Definizioak.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarraian azaldutako kontzeptuak esanahi eta irispide hauekin interpretatu eta aplikatuko dira:

1. Txikizkako merkataritza: Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2025) edo hori ordeztzen duen araudiaren esparruan halakotzat jotako jarduerak.
2. Saltoki singularra: handizkako ez den, merkataritza-banaketa duen eta nagusiki jarduera hauetakoren batera bideratzen den saltokia:

- a) Altzari eta etxetresna elektrikoen erakusketa eta salmenta.
 - b) Nekazaritzako makineriaren, industria-ibilgailuen eta automozio-ibilgailuen erakusketa eta salmenta.
 - c) Erregaiak igortzea eta saltzea.
 - d) Eraikuntzako, saneamenduko, brikolajeko eta burdindegietako makinen, materialen eta artikuluen erakusketa eta salmenta.
 - e) Lorezaintzako zentroak eta mintegiak.
 - f) Mugaldeetan dauden saltokiak.
3. Merkataritza-establezimendu handiak: merkataritza-establezimendu indibidualak edo kolektiboak dira, saltoki singular gisa sailkatutakoez bestelako txikizkako merkataritza-erabilera dutenak, eta 2.500 metro koadrotik gorako merkataritza-azalera erabilgarria dutenak.
 4. Merkataritza-establezimendua handitzea: lehendik dagoen edo baimendutako merkataritza-establezimendu baten merkataritza-azalera erabilgarria handitzea. Era berean, edozein merkataritza-establezimendu merkataritza-establezimendu handitzat hartuko da baldin eta, jatorrizko metro karratuak eta handitzearen ondoriozkoak batuta, merkataritza-azalera erabilgarria 2.500 metro koadrotik gorakoa bada.
 5. Merkataritza-espazioa: lurralde-kokapen espezifikoa eta jakin batean merkataritza-jarduera kudeaketa bateratuaren printzipioari jarraikiz gauzatzeko diseinatutako espazioa. Hala, partekatu eginen dira zerbitzuak edo, behintzat, zerbitzu batzuk, hala nola aparkalekuak, sarbideak eta marka-unitatea.
 6. Merkataritza-azalera erabilgarria: produktuak erakutsi eta saltzeko normalean eta modu iraunkorrean erabiltzen diren eta jendeak oro har erabil ditzakeen eremu edo lokalen azalera osoa da. Azalera horren barruan sartzen dira, halaber, erakusleihoak, erakustoki eta

erakusmahaiek hartutako espazioak, kuxtak, korridoreak eta sarbideak. Ez dira azalera erabilgarritzat hartuko, inola ere, bulegoak, komunak, aparkalekuak, zamalanetarako eremuak eta biltegiak, eta, orokorrean, jendearen sarrera murriztuta daukaten leku edo instalazio guztiak.

7. Azken kontsumoko ondasunak dira ekoizteko, merkaturatzeko edo hirugarrenei zerbitzuak emateko prozesuetan sartzera bideratuta ez daudenak.
8. Merkataritza-formatuen tipologia: 1) Saltoki txikia: 300 metro koadrora bitarteko merkataritza-azalera erabilgarria dute. 2) Saltoki ertaina: 300 eta 1.500 metro koadro arteko merkataritza-azalera erabilgarria dute. 3) Saltoki handiak: produktuak erakusteko eta saltzeko, 1.500 metrotik 2.500 metro koadrora bitarteko merkataritza-azalera erabilgarria dute. 4) Merkataritza-establezimendu handia: 2.500 metro koadro baino gehiagoko merkataritza-azalera erabilgarria du.
9. Kanpo-efektu negatiboen kontzeptua: merkataritza-establezimenduen finkatze fisikoak lurraldean eragindako inpaktuak. Inpaktu horiek ingurumenarekin, lurraldearekin, hirigintzarekin eta mugikortasun jasangarriarekin lotutakoak dira. Inpaktu horiek udalez gaindiko eta merkataritza-jardueratik kanpoko ondorioak eragin ditzakete. Horrenbestez, aurretiaz aztertu eta ebaluatu behar dira, zenbait ikuspegi aintzat hartuta: ingurumena, gizarte kohesioa, hirigintza, lurraldea, mugikortasun jasangarria eta hiriko ingurumenaren babesa.
10. Komenentziako dendak: komenentziako dendatzat hartuko dira erakusketara eta publikoarentzako salmentara bideratutako azalera erabilgarria 500 metro koadro baino gutxiagokoa dutenak eta egunean gutxienez hemezortzi orduz irekita egoten direnak, betiere artikulua multzo hauen artean antzera banatzen badute beren eskaintza:

liburuak, egunkariak eta aldizkariak, elikagaiak, diskoak, bideoak, jostailuak, opariak eta beste artikulua batzuk.

11. Bizitegitarako hiri-bilbea: erabilera kolektiboko etxebizitza-eraikinak, zuzkidurak eta espazio publikoak antolatzeko modua da. Etxebizitza kolektiboek (dentsitatea aldakorra da), hainbat tipologiatako eraikinek eta zerbitzu eta azpiegitura publikoen sare batek osatzen dute. Bizitegitarako hiri-bilbea da sartuta dagoena nagusiki bizitegi-erabilera kolektiboa duen sektore edo eremu batean (hiri-lurzorua), edo lurzoru urbanizatuaren egoeran dagoen lurzoru batean, edo lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresnen arabera, etorkizunean lurzoru urbanizatu bihurtzea aurreikusten den edo ahalbidetzen den landa-lurzoru batean; hori guztia, hirigintzari buruzko legedian ezarritakoaren arabera.
12. Lehendik dagoen mugikortasun-azpiegituraren oinarritzko zerbitzu-sarea: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko Nafarroako errepide sareko errepideak dira.
13. Landa-saltoki hibridoa: Nafarroako landa-eremuetan dauden saltokiak, produktuen salmenta ostalaritzarekin edo bestelako zerbitzuekin uztartzen dutenak.
14. Saltokirik gabeko eremuak: eremu horietan herritarrek oso mugatua dute premiazko produktuak eta egunero kontsumitzekoak direnak erosteko aukera, dela saltokirik ez dagoelako dela saltoki gutxi dagoelako.
15. Hurbileko merkataritza: hiri-bilbean dagoen txikizkako merkataritza. Saltokiok hiri-bilbean daudenez, herritarrek ez dute zertan ibilgailu pribaturik hartu horietan ondasunak edo salgaiak erosteko.

16. Azken miliako garraioa: hornidura-katearen azken zatia da. Etapa honetan iristen dira produktuak azken kontsumitzailearengana. Fase hau hasten da produktuak irteten direnean banaketa-zentro edo biltegi batetik, eta amaitzen da bezeroak emandako helbidera iristen direnean.
17. Zigarreta elektronikoa, bapeagailua edo lurruneztagailua: edozein gailu bateriadun, likidoak berotzeko eta hala pertsonak arnastu dezaketen lurruna sortzeko erabiltzen dena.
18. Edari energetikoa: 100 mililitroko 32 miligramotik gora kafeina duen alkoholik gabeko edaria, eskuarki gasduna.

II. TITULUA: MERKATARITZA-JARDUERA GAUZATZEA.

I. KAPITULUA. Merkataritza-jarduera.

5. artikulua Txikizkako merkataritzaren edo txikizkako merkataritza-jardueraren kontzeptua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, txikizkako merkataritza edo txikizkako merkataritza-jarduera da saltzeko asmoz erosi diren produktuak edo salgaiak funtsezko aldaketarik gabe merkaturatzea, jarduera hori profesionalki eta irabazi-asmoarekin egiten delarik, eta establezimendu bat erabiliz edo erabili gabe.

2. Merkataritza-jarduerarekin batera, kasuan kasuko zerbitzu osagarriak ere eman daitezke.

3. Txikizkako merkataritza-jardueraren azken hartzaileak dira produktu bat eta haren zerbitzu osagarriak, halakorik bada, norberaren erabilerarako edo gozamenerako erosten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, haien helburua

ez delarik produktua birsaltzea, hirugarrenei lagatzea edo ondotiko ezein ekoizpen-prozesutan edo enpresa-jardueratan txertatzea.

6. artikulua. *Handizkako merkataritza-jardueraren kontzeptua, eta handizkako eta txikizkako jarduera aldi berean gauzatzea.*

1. Foru lege honen ondorioetarako, handizkako merkataritza-jardueraren funtsa da salgaiak erostea eta beste merkataria, enpresa, entitate edo erakunde batzuei eta artisauei handizka saltzea, eralda ditzaten edo beren ekoizpen-prozesuetan txerta ditzaten. Hartzaile horiek ez dira azken kontsumitzaileak izaten.

2. Handizkako merkataritza-jarduera txikizkako merkataritzarekin batera eta merkataritza-establezimendu berean egiten bada, foru lege honetan txikizkako merkataritzari aplikagarri zaizkion manuen mende egonen da, salbu eta bi merkataritza-jarduera horiek argi eta garbi bereizita egiten badira.

7. artikulua *Entitate kooperatiboak eta hirugarrenetikiko eragiketak.*

1. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperatibek, bai eta bazkideak eta hirugarrenak ondasunez eta zerbitzuez hornitzen dituzten bestelako kooperatibek ere, bereizi egin behar dute bazkideei zuzendutako eskaintza eta publiko orokorrari zuzendutakoa. Kooperatiben eskaintza, baldin eta publiko orokorrari zuzentzen bazaio edo bazkideei egiten zaien eskaintzatik erabat bereizita ez badago, foru lege honen pean egonen da.

2. Kooperatibek hirugarrenekin jardun ahal izanen dute; kasu horretan, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legean edo hura ordeztzen duen araudian jasotako erregulazioaren pean egonen dira.

8. artikulua. *Merkataritza-jardueretan aritzeko baldintzak.*

Foru lege honetan zehaztutako merkataritza-jarduera gauzatu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Merkataritzan aritzeko gaitasun juridikoa izatea, Estatuko araudi zibilari eta merkataritza-araudiari jarraikiz.
- b) Edozein administrazio publikok kasuan kasuko merkataritza-jarduera gauzatzeko ezartzen dituen zergak ordaintzea.
- c) Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta-egoeran egotea.
- d) Behar diren tituluak izatea. Ikusgai egon beharko dute merkataritza-jarduera gauzatzen den tokian, betiere hala ezarrita badago aplikatu beharreko araudian.
- e) Salgai dauden produktuei aplikatu beharreko berariazko araudiek ezarritako baldintzak betetzea.
- f) Jardueraren hasieraren berri ematea, Estatuaren oinarritzko legerian eta foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz hala egin behar den kasuetan.

9. artikulua. Merkataritza-jardunbideak eta indarrean dagoen legedia.

Merkataritza-jarduera foru lege honetan xedatutakoaren arabera gauzatuko da, betiere manu hauei jarraikiz: zerga- eta lan-araudia, lehiari buruzko araudia, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko araudia, publizitateari buruzko araudia eta, hala badagokio, elikadura-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea edo hura ordeztzen duen araudia, eta, oro har, jarduera-adar bakoitzaren arabera aplikatu beharreko araudia.

10. artikulua. Merkataritzan aritzeko debekuak eta mugak.

1. Debekatuta dago merkataritza-jarduera gauzatzean jardueraren arabera aplikagarria den legeria sektoriala urratzea.

2. Merkataritzari buruzko foru lege hau interpretatzean, merkataritza-operadoreen arteko lehia askea sustatu beharko da, eta merkataritzan aritzeko muga arbitrario guztiak saihestu beharko dira.

II. KAPITULUA. Merkataritza-establezimenduak.

11. artikulua Merkataritza-establezimenduen kontzeptu orokorra.

1. Honako hauek hartuko dira txikizkako merkataritza-establezimendutzat: merkataritza-jarduera baliatu ohi duten lokalak eta izaera finko eta iraunkorreko instalazioak nahiz eraikuntzak, alde batera utzita banaka nahiz taldekako guneetan eginak diren eta alde batera utzita modu iraunkorrean nahiz egun edo sasoi jakinetan eginak diren.

2. Merkataritza-establezimendu izatetik kanpo geratzen dira bide publikoan kokatutako guneak, toki entitate eskudunen baimena dutenak txikizkako salmenta-jarduera ez-egonkorrean jarduteko.

12. artikulua. Merkataritza-establezimenduen sailkapen orokorra.

Txikizkako merkataritza-establezimenduak, oro har, banakako edo kolektibo gisa sailkatzen dira.

13. artikulua. Merkataritza-establezimendu kolektiboak.

Merkataritza-establezimendu kolektibotzat joko dira:

- a) Bizitegitarako hiri-bilbetik kanpo, merkataritza-gune berean bildutako txikizkako merkataritza-establezimenduen multzoa.
- b) Bi txikizkako merkataritza-establezimendu edo gehiago, 300 metroko diametroko zirkulu baten barruan kokatuak, bizitegitarako hiri-bilbetik kanpo. Distantzia hori merkataritza-establezimenduetako edozein eraikinen erdigunetik neurtuko da.

III. KAPITULUA. Merkataritza-establezimenduak jartzea.

1. atala. Printzipio orokorrak.

14. artikulua. Merkataritza-establezimenduak jartzeko bete beharreko printzipio orokorrak.

Txikizkako merkataritza-establezimenduak jartzeko edo handitzeko, honako printzipio hauek bete beharko dira:

- a) Establezimendu-askatasunaren printzipioa, zeinak ez baitu beste mugarik onartzen baizik hirigintzakoak edo lurraldezkoak, ez badira diskriminatzaileak eta aitzitik beharrezkoak badira, justifikatuak badaude interes orokorreko premiazko arrazoi batengatik eta proportzionaltasun-printzipioa betetzen badute, egokiak direlako nahi den helburua lortzeko, ez doazelako horretarako behar-beharrezko denetik harago eta, gainera, ezin direlako ordeztu emaitza bera lortzea ahalbidetzen duten neurri ez hain murriztaile batzuekin.
- b) Lurralde- eta hiri-garapen jasangarriaren printzipioari jarraikiz, merkataritza bizitegi-erabilerarekin uztartu behar da zuzkidura osagarri eta bateratu gisa, zerbitzuak auzokoengana hurbildu behar dira, kohesioa eta gizarteratzea sustatu behar dira, eta hiri konpaktuaren eredura, lurzorua zentzuz erabiltzera, eraikinak birgaitzera eta hiri-ehunak berroneratzera eta berritzera bideratutako jarduerak bultzatu behar dira.
- c) Jarduera ekonomikoko poligonoetan, jarduera ekonomikoen erabilera nagusia osatzea merkataritza-erabilera osagarritz.
- d) Ibilgailu motordunen bidezko garraioa murriztearekin batera, kontsumo jasangarria egiteko behar diren baldintzak sustatzea; hori guztia jasota dago Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duen

abenduaren 12ko 34/2022 Foru Legearen 13. artikuluko eskubide sortu berrien artean.

- e) Irisgarritasun unibertsala eta diskriminaziorik eza saltokietara sartzean eta haiek erabiltzean, bereziki adineko edo desgaitasuna duten pertsonentzat.

15. artikulua. Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko eta handitzeko baldintzak.

1. Merkataritza-establezimendu handiak, banakakoak zein kolektiboak, bizitegitarako hiri-bilbean ezarri beharko dira.

2. Bizitegi-erabileraz bestelako hiri-lurzoruan merkataritza-establezimendu singularrak instalatzen ahalko dira. Hala, administrazio eskudunek, beren eskumen esparruan eta hirigintzako araudian zein lurralde antolamenduko araudian ezarritakoari, bai eta lege honetan araututakoari jarraikiz, arautzen ahalko dute saltoki singularrak jartzea jarduera ekonomikoen poligonoetan.

3. Merkataritza-establezimendu handiak, banakakoak zein kolektiboak, jartzeko eta handitzeko, alde zuzeneko ebaluazioak egin beharko dira, kanpo-efektu negatiboak aztertu ahal izateko.

2. atala. Merkataritza-erabileraren lurralde-antolamenduari eta hirigintza-antolamenduari buruzko araupetzea.

16. artikulua. Lurralde-antolamenduko tresnak.

1. Lurralde-antolamenduko tresnek, beren zehaztapenen artean, lurraldean merkataritza-establezimendu handiak antolatzeak irizpideak jaso beharko dituzte. Irizpideok foru lege honen printzipioei egokituko zaizkie.

2. Hauek hartuko dira irizpide orokor gisa:

a) Merkataritza, merkataritza-establezimendu handiak barne, ahal dela udalerrian lehendik dagoen edo aurreikusita dagoen bizitegitarako hiri-bilbearen barruan ezartzea, foru lege honetan araututakoaren arabera.

b) Bizitegi- eta merkataritza-erabileren zuzkidura osagarri eta bateratua, horien integrazioa sustatu eta hiri konpaktuaren eredua bermatzeko.

c) Herritarrei bermatzea eta erraztea merkataritza-establezimenduetarako hurbiltasun- eta irisgarritasun-harremana, bereziki adineko pertsonei dagokienez; izan ere, kontsumitzaile edo erabiltzaileen subiranotasun eskubidea da ondasunak erosteko edo zerbitzu bat kontratatzeko erabakia libreki, kontzienteki eta informazioa jaso ondoren hartzea. Hori guztia, bat eginez Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duen abenduaren 12ko 34/2002 Foru Legearen 13. artikuluan (eskubide sortu berriak) adierazitakoarekin.

d) Merkataritza-jardueren lurraldeko ezarpenak daukan eragina gutxitzea, zehazki honako esparru hauetan: mugikortasuna eta zoruaren okupazioa.

3. Lurralde-antolamendurako tresnak onetsi, aldatu edo berrikusteko prozeduretan eskumena duten organoek, foru lege honetan ezarritako gutxieneko merkataritza-eraikigarritasun erreserba aplikagarri denean, txostena egin dezan eskatuko diote txikizkako merkataritzaren arloko eskumenak dituen departamentuari. Txosten horretan aztertuko da zenbateraino egokitzen diren plangintza-tresna horiek merkataritzari buruzko foru lege honetan ezarritako irizpide hauetara: merkataritza, ahal bada, hiri-bilbearen barruan jartzea, eta bizitegi-erabileren eta jarduera osagarrien zuzkidura osagarri eta bateratua egitea.

Txostena gehienez hiru hilabeteko epean egingen da. Epe hori igaro ondotik, ulertuko da txostena aldekoa dela.

17. artikulua. Udalen hirigintza-plangintza.

1.- Hirigintza-antolamendurako tresnek, tresna bakoitzaren berezko izaeraren arabera, lurraldean merkataritza-establezimendu handiak antolatzeko irizpideak jaso beharko dituzte beren zehaztapenen artean. Irizpideok foru lege honen printzipioei egokituko zaizkie.

2.- Udalaren hirigintza-plangintzak, merkataritza-erabilerari dagokionez, zehaztapen hauek jaso beharko ditu:

a) Bizitegitarako hiri-bilbearen barruan, merkataritza-jarduera sustatzeko lekurik egokienak zein diren zehaztea, irizpide hauek kontuan hartuta: merkataritza-jarduera horrek lurraldean ahalik eta inpaktu gutxien izatea; mugikortasun-premia osagarririk ez eragitea eta lehendik dauden azpiegituren funtzionamendua arriskuan ez jartzea; eta ingurumen-baldintzak ahalik eta gutxien narriatzea.

b) Merkataritza-erabileraren berariazko arauketa bat izatea, merkataritza-erabileraren eta gainerako erabileren arteko bateragarritasun-maila jasotzen duena.

c) Gehienbat jarduera ekonomikoetarako erabiltzen diren eremuetan, txikizkako merkataritza-erabilera arautzea, eremu horretako produkzio-edo zerbitzu-jardueraren erabilera osagarri gisa.

d) Bizitegitarako hiri-bilbearen barruan merkataritza-erabileren garapena sustatzea, merkataritzarako ahalik eta lurzoru berri gutxiago behar izateko, eta, hartara, hedatze ez-jarraituak saihesteko. Horretarako, bizitegi-eraikinetako etxabeetan merkataritza-erabilera lehenetsiko da.

e) Merkataritza-zuzkidura orekatua sustatzea udalerrietako auzo guztietan, batez ere egunero kontsumitzen diren ondasunak erosteari dagokionez, ez dadin izan hornidurarik gabeko eremurik, bazterketa

funtzionalik eta merkataritza-eskaintzarako sarbide ez-ekitatiborik, bereziki desoreka horrek eragiten ahal dienean adinekoei edo desgaitasunen bat dutenei.

3.- Udalaren hirigintza-plangintzak merkataritza-establezimendu handi bat ezartzea proposatzen badu, foru lege honetan definitutako printzipio, helburu eta irizpideei jarraikiz hautatu behar da kokalekua.

4.- Merkataritzaren hurbiltasuna eta integrazioa sustatze aldera, erreserba hauek ezarri dira, bizitegi-erabilera globaleko eremuetan egiten diren hirigintza-erlaldaketako ekintzei eta urbanizazio berriko edo urbanizazioa eraberritzeko eta berritzeko obrei aplikatzeko:

- a) Hiri-erlaldaketako jarduerak antolatzen dituen plangintza-tresnak merkataritza-erabilerako eraikigarritasun-erreserba bat jaso beharko du, aurreikusitako bizitegi-eraikigarritasunaren ehuneko zortzikoa, gutxienez.
- b) Merkataritza-erabilerako gutxieneko eraikigarritasun-erreserba hori merkataritza-formatuen aniztasuna ahalbidetzeko moduan antolatu behar da (foru lege honen 4. artikuluan daude definituta merkataritza-formatuen tipologiak).
- c) Merkataritza-erabilera modu koherentean integratu behar da bizitegi-erabilerarekin, eta, ahal dela, etxabeetan kokatu behar da. Etxabeetan kokatu beharko da eremuan edo sektorean merkataritza-erabilerarako aurreikusten den eraikigarritasun minimoaren %60 gutxienez.
- d) Familia bakarreko bizitegi-erabilerako eremuetan, eraikuntza independente isolatuan kokatu daiteke gutxieneko merkataritza-zuzkidura, baldin eta bizitegi-eraikinetako etxabeen azalera ez bada nahikoa edo ez bada egokia.
- e) Hiri-lurzoru finkatuan, zuzkidura-jarduketak edo urbanizazioaren erreforma-jarduketak aurreikusten badira, merkataritza-erabilerako

gutxieneko erreserbak izaera orokorra izanen du, eta nahitaezko erreferentzia izanen da. Beraz, etxabeetako merkataritza-lokalak gutxieneko merkataritza-erreserbaren parte badira, debekatua egonen da haiek etxebizitza edo turismo-ostatu gisa erabiltzea. Hori dela eta, gutxieneko merkataritza-erreserba osatzen duten lokalen erregistroa egin beharko dute udalek.

- f) 5.000 biztanle baino gehiagoko herriguneak erreserba hori kontuan hartzetik salbuetsita geldi daitezke, baldin eta toki entitateak espedientean egiaztatzen badu interes orokorrerako aukera bat dela eta baliagarria izanen dela. Txikizkako merkataritzaren arloan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiak aurretiko txosten bat igorri beharko du, eta lurralde-antolamenduaren arloan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiak, hala badagokio, merkataritza-erreserbaren dispensa onetsi beharko du.

5.- Udal plangintzaren berrikuspenetan eta aldaketetan bizitegi-hazkundeak aurreikusten badira, merkataritzara bideratutako azaleraren gutxieneko ehunekoa errespetatu beharko da.

6.- Lurralde-antolamendurako tresnak onetsi, aldatu edo berrikusteko prozeduretan eskumena duten organoek, foru lege honetan aurreikusitako gutxieneko merkataritza-eraikigarritasunaren erreserba aplikatu behar den kasuetan, txostena egin dezan eskatu beharko diote txikizkako merkataritzaren arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiari.

Txosten hori egiteko eskaerarekin batera, memoria bat aurkeztuko da, zeinaren bidez justifikatuko baita nola artikulatu den merkataritza-eraikigarritasunaren erreserba (aurreikusitako bizitegi-eraikigarritasunaren ehuneko hamarrekoa izan behar du, gutxienez), eta nola ahalbidetu merkataritza-formatuen tipologia askotarikoa etxebizitza kolektiboen etxabeetan. Txostenak egiaztatuko du ea betetzen den merkataritza-erabilerako

gutxieneko eraikigarritasun-erreserba eta ea merkataritza-formatuaren tipologia askotarikoa den etxebizitza kolektiboen etxabeetan. Txostena nahitaezkoa eta loteslea da, eta hura emateko bi hilabeteko epea dago. Bi hilabete igarota, administrazio-isiltasuna positiboa dela ulertuko da.

18. artikulua Merkataritzako erakartze eta antolamendurako plana

1. Toki entitateek merkataritzako erakartze eta antolamendurako plan bat onesten ahalko dute. Plan horrek merkataritza-eredua definituko du eta hurbileko merkataritza sustatuko, batez ere hiriguneetako merkataritza-eremuetan eta dentsitate handiko bizitegi-areetan.

2. Merkataritzako erakartze plana udal ordenantza bat izanen da, eta udalak onetsiko du, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

3. Merkataritzako erakartze plana udalaz gaindikoa izan daiteke kasu hauetan:

- a) Gaian eskumena duen udalaz gaindikoko entitate batek onetsi duenean.
- b) Bi udalerrik edo gehiagok hala adostu dutenean, udalerri bakoitzaren eskumen-esparrua eta toki-autonomiaren printzipioa aintzat hartuta.

3. atala: Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko edo handitzeko lurraldeko merkataritza-txostena tramitatzea.

19. artikulua. Merkataritza-establezimendu handiak jartzea edo handitzea, behar den lurraldeko merkataritza-txostena tramitatzearen bidez.

1. Merkataritza-establezimendua jartzeko, oro har, ez da baimenik beharko.

2. Merkataritza-establezimendu handi bat jartzeko edo handitzeko, kasuan kasuko obretarako eta jarduera sailkaturako udal lizentziez gain, txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak tramitatutako lurraldeko merkataritza-txostena beharko da.
3. Txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak, leihatila bakarra den aldetik, merkataritza-establezimendu handia ezartzeari edo handitzeari dagokionez, txostena eginen du eta txostenak egin ditzaten eskatuko die lurralde-antolamenduaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari eta merkataritza-establezimendu handia jarriko den herrian garraio publikoaz arduratzen den entitateari.
4. Lurraldeko merkataritza-txostenaren barnean dauden hiru txosten horiek nahitaezkoak eta lotesleak dira; haien xedea da aldez aurretik ebaluatzea merkataritza-establezimenduak sortuko dituen inpaktuak, batez ere kanpo-efektuak ekarriko dituztenak eta lurzati edo orube baten hirigintza-kalifikazioaren bidez soilik neurtu ezin direnak.
Txostenok hirigintzako plangintza irisgarri, inklusibo eta udalaz gaindikoaren parte dira, eta kanpo-efektu negatiboak aldez aurretik ebaluatzea dute helburu. Hiri trinkoa sustatzeaz gain, eta herritarrei oinarrizko erosketa-beharrak asetzen laguntzeaz gain, segurtasun publikoaren, osasun publikoaren eta hiri-ingurumenaren babesa bermatu nahi dute, eta, hala, ingurumen osasuntsurako eskubidea bermatu, bultzatuko dituen garapen jasangarria sustatuko duen kontsumo arduratsua egiteko beharrezkoak diren baldintzak.
5. Artikulu honetan aipatu hiru txostenak nahitaezkoak eta lotesleak izanen dira, eta ez dute inola ere berekin ekarriko azterketa teknikoak edo hirigintzaren edo ingurumenaren legezkotasunaren egiaztapenak baliozkotzea, ez eta aldez aurreko udal edo foru lizentziak ematearekin lotutako beste edozein gai baliozkotzea ere. Merkataritza-establezimendu

handia jartzeko edo handitzeko baimena tramitatzean, ezin izanen dira berrikusi udal eskumenekoak diren alde zuzeneko jarduketak.

6. Txikizkako merkataritzan eskumena duen zuzendaritza nagusiak, behar diren txostenak igorri ondoren, baimendu, ukatu edo baldintzapean baimenduko ditu jarduera horiek.
7. Interesdunek foru lege honetan araututako prozeduretan egindako txosten lotesleak aurka egin ahal izanen dute, lurraldeko merkataritza-txostenaren prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena aurkaratuz, edo aipatutako txosten lotesleak aurkaratuz, baldin eta horiek baimen hori ematea eragozten badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz.
8. Lurraldeko merkataritza-txostena emateko prozedurari amaiera ematen dion ebazpena administrazio-bidean aurkaratzeak txosten lotesle edo erabakigarrietan ezarritako baldintzei eragiten dienean, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak halakoak eman dituzten organoei helaraziko die errekurtsioa, horiek, egoki iritziz gero, alegazioak aurkez ditzaten hamabost eguneko epean. Alegazioak epe barruan eginez gero, erabakigarriak izanen dira errekurtsioa ebazteko.
9. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitezkeen administrazioarekiko auzi-errekurtsioan nahitaezko txosten lotesle edo erabakigarriak buruzko uziak ondorioztatzen badira, txostenak jaulki dituen administrazioa kodemandatutzat joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

20. artikulua Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko edo handitzeko prozedura eta txostenen irismena.

1. Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko edo handitzeko baimen-prozedura administrazioaren sinplifikazio-printzipioetara egokituko da.
2. Merkataritza-establezimendu handiak ezartzeko edo handitzeko izapideak telematikoki egingen dira, prozedura honi jarraikiz:
 - a) Interesdunak kasuko eskaria aurkeztuko dio jarduera jarriko den esparruko udal eskudunari; harekin batera, foru lege honen 21. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du.
 - b) Udalak, aurkeztutako eskaerari erantzun beharrez, interesdunari adierazi beharko dio lurraldeko merkataritza-txostena behar duen ala ez merkataritza-establezimendu handi bat jartzeko edo handitzeko, zein diren udal lizentziak lortzeko ezarritako epeak, zein organok duen eskumena lizentzia horiek ebazteko, eta zer esanahi duen administrazio-isiltasunak.
 - c) Udalak udalaren hirigintza-plangintzarekiko bateragarritasun-txostena erantsiko dio espedienteari, bai eta udal horretan mugikortasunari eta hirigintza-aurrekariei buruz dagoen informazioa ere. Espediente hori gehienez ere bi hilabeteko epean bidaliko dio txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari. Epe hori igaro eta oraindik ez bazaio aipatu departamentuari dokumentazioa bidali, interesdunak zilegi izanen du baimena zuzenean telematikoki eskatzea aipatutako departamentuan.
 - d) Txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak, administrazioa sinplifikatzeko printzipioari jarraikiz leihatila bakar gisa diharduela, txostena egin beharko du, eta, horrez gain, kasuan kasuko nahitaezko

txostenak egiteko eskatu beharko die lurralde-antolamenduaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari, herri-lanen eta garraioen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari eta merkataritza-establezimendua ezarriko den herrian garraio publikoaren ardura duen administrazioari. Aipatutako nahitaezko txostenak oinarri hartuta, ukatu edo eman egingen da merkataritza-establezimendu handi bat jartzeko edo handitzeko baimena.

e) Aipatu lau txostenetako bakoitza bi hilabeteko epean eman beharko da, barnean dituela honako hauek:

- Lurralde-antolamenduaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren txostena: establezimendua edo haren handitzea lurralde-antolamenduko tresnen zehaztapenetara egokitzen den zehaztu behar du.
- Txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren txostena: zehaztu behar du ea betetzen diren merkataritza-establezimendu handiak jartzeko eta handitzeko baldintzak, zeinak ezarrita baitaude foru lege honen 15.1 eta 15.2 artikuluetan. Hau da, egiaztatu behar da instalatuko den merkataritza-establezimendua arrunta edo singularra den eta, ondorioz, bizitegitarako hiri-bilbean kokatu behar den ala ez.
- Hiri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren txostena: azalduko du aurretik dagoen mugikortasun-azpiegituraren oinarrizko zerbitzu-sareak jasan ahal dituen merkataritza-establezimendu handi berriak eraginen dituen joan-etorriak.

➤ Merkataritza-establezimendu handia ezarriko den herrian garraio publikoaz arduratzen den entitatearen txostena, halako entitaterik badago: txosten horretan zehaztu beharko da ea lehendik dauden garraio publikoko lineak egokiak eta nahikoak diren merkataritza-establezimendu handi berriaren eskariari erantzuteko.

f) Dokumentazio osoa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aurkezten denetik bederatzi hilabete iragan ondotik, txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak udalari inolako egintzarik jakinarazten ez badio, ulertuko da ezen isiltasun positiboaren bidez eman dela merkataritza-establezimendu handi bat instalatzeko edo handitzeko baimena.

g) Udalak eta txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak, bakoitzak bere eskumen-eremuan, aldi berean eskatuko dute nahitaezko txosten guztiak egiteko. Eman beharreko txostenak ez dira ondoz ondokoak, eta, beraz, txosten bat egiteko ez da beharrezkoa izanen beste organo sektorial baten alde aurretiko txostena.

21. artikulua. Merkataritza-establezimendu handiak jartzeko edo handitzeko lurraldeko merkataritza-txosten eskaera tramitatzeko behar den dokumentazio teknikoa.

1. Merkataritza-gune handi bat jarri edo instalatu nahi duten pertsonak, eskaera bat aurkeztu beharko diote gune hori jarri edo handitu nahi den udal-mugarteko udalari. Eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Oinarrizko proiektua eta memoria; teknikari eskudun batek sinatu beharko ditu, eta indarrean dagoen araudiak eta foru lege honek eskatutako gutxieneko edukia jaso beharko dute.
- b) Teknikari eskudun batek sinaturiko azterlana, ezarpenaren edo hedapenaren eraginak sorrarazitako mugikortasuna eta mugikortasun horrek ekarritako CO₂-emisio atmosferikoak ebaluatuko dituen.
- Azterlanak osotasunez baloratu beharko du saltokiak eragindako mugikortasuna eta, gainera, mugikortasunaren ondoriozko CO₂-emisio atmosferikoei buruzko gutxi gorabeherako kalkulu bat ere jaso beharko du, arauz baimendutako metodologia edo sistemak erabiliz. Atmosferara egingen diren emisioen zenbatespenak, nolanahi ere, informazio hau banakatuko du: joan-etorrien batez besteko distantzia; eguneko aurreikusten den ibilgailu kopurua; ibilgailuen banaketa modala kilometroko; auto-ilarak dauden bideetan —nagusietan nahiz bigarren mailakoetan— izanen diren joan-etorrien ehunekoaren zenbatespena; eta batez besteko abiadura ibilgailu motaren arabera.
- Merkataritza-establezimendu handia ezartzeak berekin badakar lehendik dagoen garraio publikoaren zuzkidura handitu behar izatea edo lotutako azpiegiturak aldatu behar izatea, jarduera ezarri nahi den eremuan garraio publikoaren ardura duen entitateak proposatutako jarduketaren aldeko txostena eman beharko du, eta zehaztuko du, hala badagokio, garraio-zuzkidura edo haren azpiegiturak handitzearen edo aldatzearen ondoriozko zer kostu diren jarduketaren sustatzaileari egotzi beharrekoak.
- c) Elikagaiak alferrik ez galtzeko eta kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa eta birziklapena sustatzeko neurrien plana, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo hura ordeztzen duen arauan xedatutakoaren ildotik.

- d) Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean edo hura ordezkatzeko duen arauan ezarritako neurri guztiak betetzeko plana.

2. Interesdunak, oinarritzko araudiaren arabera, ez ditu aurkeztu beharko jada administrazio eskudunaren esku dauden agiriak. Edonola ere, interesdunak adierazi beharko du zer unetan eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen aipatu agiriak.

22. artikulua. Merkataritza-establezimendu handia jartzeari edo handitzeari buruzko txosten positiboa, negatiboa edo baldintzatua.

1. Merkataritza-establezimendu handiari buruzko txostenak egiteko, kontuan hartuko da jartzeak edo handitzeak foru lege honetan jasotako hirigintza-, lurralde-, ingurumen- eta mugikortasun-irizpideak betetzen dituen.

2. Merkataritza-establezimendu handi bat jartzea eta/edo handitzea baldintzatu, ukatu edo, hala badagokio, justifika dezaketen inguruabarrek arrazoi hauetakoren bat izanen dute oinarri:

- a) Ingurumenaren babesa: bereziki, merkataritza-establezimenduaren kokapen fisikoa ez egokitzea foru lege honek lurraldearen eta hirigintzaren arloan jasotzen dituen betebeharrak, irizpide eta printzipioetara.
- b) Adinekoek edo desgaitasunen bat dutenek benetako irisgarritasunik ez izatea ibilgailu pribaturik erabili ezean.
- c) Proiektuak egungo azpiegituren oinarritzko sarearen zerbitzu-ahalmena handitzeko beharra ekartzea.
- d) Merkataritza-establezimendu handia jartzea edo handitzea lurralde- edo hirigintza-antolamendurako tresnen edo foru lege honetan

xedatutakoaren aurkakoa izatea, merkataritza-establezimenduak lurraldean fisikoki finkatzeko bete behar diren baldintzei dagokienez.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek, indarrean dagoen legeriaren esparruan, baldintzapenak edo neurri zuzentzaileak hartzea sustatuko dute, interes orokorra babesteko, eta, aldi berean, egoki diren baimenak ematea ahalbidetzeko.

23. artikulua. Merkataritza-establezimendu handi bat jartzeko edo handitzeko lurraldeko merkataritza-txostena izapidetzeagatik ordaindu beharreko tasa

1. Merkataritza-establezimendu handi bat jartzeko edo handitzeko lurraldeko merkataritza-txostena tramitatzeko berekin ekarriko du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko foru legean ezarritako tasaren sortzapena.

2. Dagokion eskabidearekin batera aurkeztuko da tasa hori ordaindu izanaren ziurtagiria.

3. Eskabidea izapidetzeko onartzen ez bada, itzuli egingen da ordaindutako tasa.

III. TITULUA. Salmenta bereziak eta haien kanpo-efektuak.

24. artikulua. Urrutiko salmentak eta merkataritza elektronikoa.

1. Urrutiko salmentatzat jotzen dira saltzailea eta eroslea aldi berean toki berean egon gabe egiten direnak, lehenengoaren eskaintza eta bigarrenaren onarpena urrutiko edozein komunikabideren bidez transmititzen direlako.

2. Zehazki, kontzeptu horren barruan sartuko dira salmenta mota hauek: telefono bidezkoak, edo gutuneria bidezkoak (posta-bidalketa bidezkoak, katalogo bidezkoak, inprimakien bidezkoak edo prentsako iragarkien bidezkoak), eta

telebista bidez egindako salmentak, bai eta bitarteko elektronikoen bidez egindakoak ere.

3. Merkataritza elektronikoa urrutiko salmenta-modalitatetzat jotzen da. Bide elektronikoz formalizatzen diren kontratuek informazio-gizarteko zerbitzuen eta merkataritza elektronikoen arloan indarrean dagoen araudia bete beharko dute, bai eta aplikatu beharreko beste edozein araudi ere.

25. artikulua. "Dark store" edo denda ilunak urrutiko salmentaren modalitate gisa.

1. "Dark store" edo denda ilunak, foru lege honen ondorioetarako, publikoari irekita ez dauden saltokiak dira, hiriguneetan egon ohi direnak eta lokaleko espazio erabilgarri guztia online eskaerak prestatu eta bidaltzeko erabiltzen dutenak, bezeroek ez dutelarik produktuetarako sarbide zuzenik; telematikoki egiten dituzte erosketak, eta etxez etxeko entrega-zerbitzu baten bidez jasotzen dituzte eskaerak.

2. Modalitate honetako saltokiak biztanleria-dentsitate handiko hiri-inguruneetan daudenean, toki entitateek saltokiak jartzeko baldintzak arautzen ahalko dituzte, baldin eta Europako araudiari jarraikiz interes orokorreko ezinbesteko arrazoiak egiaztatzen badituzte. Baldintzak hauen antzekoak izanen dira:

- a) Saltoki horien erabilera eskusiboko espazioaren barruan, erosleari salgaiak entregatzeko erabiltzen dituzten ibilgailuentzako itxarote-gune espezifiko bat izatea, bai eta banatzaileentzako itxarote-gune bat ere, hura ere barruan.
- b) Denda ilunen zama lanak udal ordenantzek xedatutakora egokitzea.
- c) Erosleari aukera ematea eskaerak establezimenduan bertan jasotzeko eta hara itzultzeko.

26. artikulua. Merkataritza elektronikoaren kanpo-efektu negatiboak entregak hiri-eremuetan egitearen ondorioz.

1. Internet bidez edo urrutitik merkaturatzen diren produktuak ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena sortuz banatu eta garraiatu behar dira, bereziki azken miliaren fasean.

2. Toki-administrazioek, beren eskumenen esparruan, neurri konpentsatzaileak arautzen ahalko dituzte, garraio-enpresei dagokienez, hiri-inguruneetan merkantziak jasotzeak eragiten dituen kanpo-efektu negatiboengatik. Neurriek, nolanahi ere, Europako arauditik datozen diskriminaziorik ezaren, beharraren eta proportzionaltasunaren printzipioak bete beharko dituzte.

3. Toki entitateek ingurumena eta hiri-ingurune osasungarria zaintzeko arautu beharreko neurriak, betiere interes orokorreko ezinbesteko arrazoiak egiaztatzen badira, tipologia honetakoak izan daitezke, besteak beste:

- a) Salgaien banaketa murriztea ordu-tarte jakin batean.
- b) Emisio gutxiko eremuetan edo jende asko bizi den lekuetan, paketeak ibilgailu ez-motordunen bidez edo ibilgailu garbi eta zero isurikoen bidez banatzera eta entregatzera behartzea.
- c) Kontsignen edo bilketa-puntuen kokapena, instalazioa eta erabilera sustatzea eta arautzea.
- d) Hiriko paketeria-banaketak dentsitate handiko eremuetan eragiten dituen kanpo-efektu negatiboak arintzeko beste edozein neurri ezartzea.

27. artikulua. Salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria.

Salmenta ibiltari edo ez-sedentariotzat jotzen da merkatariek merkataritza-establezimendu iraunkor batetik kanpo egiten dutena, ohiki, noizbehinka, aldizka edo modu jarraituan, behar bezala baimendutako perimetroetan edo

lekuetan, merkataritza-instalazio desmuntagarri edo garraiagarrietan, denda-kamioiak barne.

28. artikulua. Salmenta ez-sedentario edo ibiltariaren udal erregulazioa.

1. Udalerriei dagokie beren udal-mugartean salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria arautzea.
2. Hiru salmenta ez-sedentario edo ibiltari bereizten dira:
 - a. Aldizkako merkatu tradizionalak edo ezarpen berrikoak, leku edo espazio jakinetan kokatu ohi direnak aldizkakotasun finkoarekin.
 - b. Azoka, festa edo ekitaldi herrikoiak direla eta, noizean behin jartzen diren azokak.
 - c. Denda-kamioietan edo bide publikoan jarritako postuetan egindako salmenta, egoera eta baldintza zehatzetan baimenduko dena.
3. Udal ordenantza bidez zehaztuko dira salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria egiteko lekuak, salbuetsitako perimetroak, maiztasuna, ordutegia eta produktu baimenduak.
4. Udalerriei dagokie beren udal-mugarteetan kaleko salmentan aritzeko baimenak ematea, indarrean dagoen legediari jarraikiz.
5. Lurzoru publikoa urria denez, baimenen iraupena ezin izanen da mugagabea izan. Merkatariei, nolanahi ere, inbertsioak amortizatzeko behar besteko epea eman beharko zaie.
6. Hautagaiak aukeratzeko prozeduran, gardentasuna, inpartzialtasuna eta publizitate egokia bermatu beharko dira.

29. artikulua. Merkataritza-jarduera ez-sedentarioa gauzatzeko baimenaren identifikazio-txartela.

1. Udalak identifikazio-txartel bat emanen dio bere udal-mugartean salmenta ibiltaria gauzatzeko baimena jasotzen duenari; txartel hori bezeroen eskura eta haiek ikusteko moduan jarriko da.

2. Identifikazio-txartelak baimenaren funtsezko datuak jasoko ditu, eta hartan agertu beharko da kontsumitzaileen erreklamazioak, halakorik balego, artatzeko helbidea. Helbide horrek salmentaren fakturan edo ziurtagirian ere agertu beharko du.

30. artikulua. *Salmenta ibiltaria non egin behar den.*

Udalerriek sustatuko dute salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria egin dadin irisgarritasun-, hirigintza- eta ingurumen-printzipioen arabera egokienak diren lekuetan.

31. artikulua. *Salmenta ibiltaria dela-eta, hurbileko salmenta eta/edo zuzeneko salmenta sustatzea.*

Toki entitateek, beren eskumen-eremuaren barruan, hurbileko salmenta eta/edo zuzeneko salmenta hedatzeko eta sustatzeko neurriak har ditzakete, Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Kanal Laburrei buruzko martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legean edo hura ordeztzen duen araudian xedatutakoaren ondorioetarako.

32. artikulua. *Salmenta ez-sedentarioa edo ibiltaria antolatzea.*

Udalerriei dagokie arau higienikoak, sanitarioak, segurtasunekoak eta merkataritza-jardueraren antolamendukoak betetzen direla bermatzea, bai eta arau-haustea kontrolatzea eta zehatzea ere, hargatik eragotzi gabe beste administrazio publiko batzuek esleituta dituzten eskumenak.

33. artikulua. *Salmenta automatikoa.*

1. Salmenta automatikoa txikizkako banaketa-metodo bat da, non produktua kontsumitzailearen esku jartzen baita, kontsumitzaileak makina automatiko baten bidez eskura dezan, dagokion zenbatekoa ordaindu ondotik.

2. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko, salmenta-makina guztietan argi eta garbi adierazi beharko dira honako hauek: a) Produktuari eta hura eskaintzen duen merkatariari buruzko informazioa: produktu mota, produktuaren prezioa eta eskaintzailearen identitatea. b) Produktua ematen duen makinari buruzko informazioa: ordainbidea, aukeratutako produktua eskuratzeko jarraibideak eta araudi tekniko aplikagarria betetzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria. c) Erreklamazioei erantzuteko kanala.
3. Salmenta-makina guztiek ahalbidetu beharko dute sartu den zenbatekoa automatikoki berreskuratzea eskatutako artikulua ematen ez badute.
4. Modalitate honetan, debekatuta dago edari energetikoak saltzea. **Edari energetikotzat jotzen da 100 mililitroko 32 miligramotik gora kafeina duen alkoholik gabeko edaria, eskuarki gasduna.**
5. Modalitate honetan, debekatuta dago, oro har, zigarreta elektronikoak, bapeagailuak edo lurruneztagailuak saltzea. Produktu mota horien salmenta automatikoa egin ahal izateko, ordenamendu juridikoan tabakoa saltzeko ezarritako baldintzak bete beharko dira.

34. artikulua Jendaurreko enkantean egindako salmenta.

1. Jendaurreko enkante batean, ondasunen salmenta eskaintzen da, publikoki eta atzera-bueltarik gabe, eskaintza-sistemaren bidez eta ezarritako epearen barruan preziorik altuena eskaintzen duenaren alde, betiere gutxieneko prezio bat gainditzen badu, zeina aldez aurretik finkatuta egon baitaiteke, edo, bestela, beheranzko eskaintzen bidez zehaztu baitaiteke enkantean zehar; eskaintzarik onena egin duena behartuta egonen da ondasuna erostera.
2. Salmenta-modalitate hori gauzatzeko, Txikizkako Merkataritza Antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean edo hura ordeztzen duen

araudian eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari buruzko araudian xedatutakoa bete behar da.

35. artikulua. Aukera-azoketako salmenta.

1. Aukera-azoketako salmenta da merkatariek, haien elkarteek edo edozein entitate publiko edo pribatuk antolatutako azoka-jarduera, saltzailearen ohiko merkataritza-establezimendutik kanpo egiten dena, non ohi baino baldintza hobeetan eskaintzen zaizkien produktuak kontsumitzaileei.

2. Aukera-azoka bat egiteko, jende-olde handia erakarriko duela aurreikusten bada, eta pertsonen eta ondasunen osotasuna babeste aldera, entitate antolatzaileak erantzukizunpeko adierazpena egin beharko du aldeztu aurretik, Nafarroako Gobernuaren webgunean eskuragarri dagoen eredu normalizatuari jarraikiz. Adierazpen hori txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari zuzenduko zaio, azoka hasi baino hogeita hamar egun natural lehenago, eta bertan alderdi hauek adierazi beharko dira: azoka-jardueraren tipologia eta sailkapena; ekitaldiaren kokapena eta iraupena; instalatu beharreko postuen kopurua; parte hartuko duten erakusketariak; azoka-jarduera zer udalerritan egingen den; eta antolaketa-arduradunaren identifikazioa.

3. Aukera-azoka egiten den lekuko toki entitateak betekizun gehigarriak eska ditzake bere eskumen-esparruaren barruan.

4. Honako hauek dira entitate antolatzailearen betebeharrak:

- a. Erantzukizun profesionaleko aseguruia edo bestelako bitarteko egokiak izatea, behar bezala bermatzeko azokako merkataritza-jardueren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak.
- b. Azokako merkataritza-jarduerak nola iragarri diren, iragarritako baldintza horiei jarraikiz gauzatzea.

- c. Azoka-esparruaren barruan, ordena publikoa, pertsonen segurtasuna eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesten direla bermatzea, bai eta aplikatzekoa den osasun-araudia betetzen dela ere.
- d. Agintaritza eskudunari eskatzen duen lankidetza ematea, ikuskatze-funtzioak betetzean.
- e. Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei adieraztea zer posta-helbide, telefono-zenbaki edo posta elektronikoko helbide erabiltzen ahal duten, edozein tokitan dutela ere egoitza, beren kexa edo erreklamazioak jartzeko, edo eskaintako edo kontrataturiko ondasunei buruzko informazioa eskatzeko.
- f. Azokan sortzen diren hondakinak gaika bereiztea.
- g. Oro har, indarrean dagoen legeria betetzea.

IV. TITULUA: SALMENTA SUSTATZEKO JARDUERAK ETA SALMENTA DEBEKATUAK.

I. kapitulua. Salmenta-sustapenen alderdi komunak.

36. artikulua Salmenta-sustapenaren kontzeptua.

Salmenta-sustapena da saltzaileak erosleei ohi baino baldintza onuragarriagoetan eskaintzea ondasunak, establezimendu bat ezagutarazteko edo produktu baten salmenta sustatzeko.

37. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Merkataritza sustatzeko jarduera foru lege honetan eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duen abenduaren 12ko 34/2022 Foru Legean edo hura ordeztzen duen araudian xedatutakoa errespetatuz gauzatu beharko da.

2. Neurri orokor gisa iragartzen den sustapen-jarduera oro ikusgai jarri beharko da kanpotik ikusteko moduan (baita establezimendua itxita dagoenean ere), jendeak haren berri izan dezan.

3. Eskaintza berezietan ez badira sartzen gutxienez salgai jarritako artikuluen erdiak, kasuan kasuko sustapena ezin izanen da neurri orokor gisa iragarri, baizik eta eskaintza horren pean benetan dauden artikuluei edo sektoreei zuzendutako neurri gisa soilik.

4. Salmentak sustatzeko jarduerak aldi berean eta merkataritza-establezimendu berean egiten ahalko dira, likidazioko salmenta kasuetan izan ezik, betiere jarduera horien artean behar bezalako bereizketa egiten bada eta informazio-betebeharrak errespetatzen badira.

5. Salmenta-sustapenen iragarkietan, jarduera horien iraupena zehaztu beharko da, eta, hala badagokio, baita salmenta horiei aplikatzekoak diren arau bereziak ere.

38. artikulua. Prezio murriztuaren eta aurreko prezioaren informazioa.

1. Prezio-murrizketa duten artikulua eskaintzen diren orotan, produktu horietako bakoitzean argi eta garbi adierazi beharko da zein zen aurreko prezioa eta zein den prezio murriztua, lehen aldiz salgai jarritako artikulua direnean izan ezik.

2. Aurreko prezioztat joko da aurreko hogeita hamar egun naturaletan produktu berdineari aplikatu zaien preziorik txikiena. Ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko iraungitze-data edo hobetsitako kontsumo-data amaitzeaz zuten produktu berdinetan elikagaiak alferrik ez galtzeko aplikatu ahal izan zen prezioa.

II. KAPITULUA. Salmenta-sustapen motak.

39. artikulua. Salmenta-sustapenen tipologia.

Honako mota hauek hartuko dira salmenta-sustapentzat: merkealdiko salmenta, eskaintza- edo sustapen-salmenta, saldoko salmenta, likidazioko salmenta, salmenta opariduna eta zuzeneko salmentako eskaintza.

40. artikulua. Merkealdiko salmenta.

1. Merkealdiko salmentatzat joko da merkealdiaren xede diren gaiak merkataritza-jarduera gauzatu ohi den establezimendu berean eskaintzea baina salmenta horren aurretik zutena baino prezio apalagoan.

2. Ezin da merkealdiko salmentatzat jo aldez aurretik ohiko prezioan salgai jarri ez diren produktuena, hondatutako produktuena edo ohikoa baino prezio apalagoan saltzeko asmoz erositakoena.

3. Merkealdiko salmentak merkataritza-interes handieneko urtarotan egiten ahalko dira, merkatarik bakoitzaren irizpideari jarraikiz. Merkatarik bakoitzak libreki erabakiko du zenbat iraunen duen merkealdi bakoitzak.

41. artikulua. Saldoko salmenta.

1. Saldoko salmentatzat hartuko da salgaiak merkatuan duten balioa baino prezio nabarmen txikiagoan eskaintzea, narriatuta daudelako, akatsak dituztelako, erabiltzen ez direlako edo zaharkituak daudelako; ez da produkturik saldokotzat joko ekoizpen-soberakin edo sasoiko soberakin izate hutsagatik.

2. Ezin da saldoko salmentatzat hartu araubide horretan salduta eroslearentzat arriskua edo engainua dakarten produktuena, ez eta egiazki ohikoa baino prezio txikiagoan saltzen ez diren produktuena ere.

3. Saldoko salmentak nahitaez izen horrekin edo “hondarren salmenta” izenarekin iragarri beharko dira.

42. artikulua. Likidazioko salmenta.

1. Likidazioko salmentatzat jotzen da zenbait produktu-izakin agortzea helburu duen salbuespeneko salmenta. Salmenta hori izen horrekin edo antzeko beste batekin iragartzen da, eta erabaki judizial edo administratibo bat betetzeko egiten da, edo merkatariak edo negozio-tituluaren eskuratzailerak egiten du, kasu hauetako edozeinetan:

- a) Saltokiaren jarduera guztiz edo partez etetea. Partez eteten bada, adierazi beharko da zer salgai mota dagoen likidazioan.
- b) Merkataritza-arloz aldatzea edo negozioaren orientazioa nabarmen aldatzea.
- c) Lokalez aldatzea edo obra handiak egitea. Lokala gutxienez 16 egun naturalez jarraian itxita ez badago, obrak ezin izanen dira inolaz ere handitzat jo.
- d) Ezinbestekoa den beste edozein kasu, merkataritza-jardueraren garapen normala eragozten duena.

2. Ezin izanen da likidazioan saldu establezimenduaren izakinetan ez zegoen produkturik, ez eta merkatariak likidazioan bertan sartzeko erositakorik ere.

3. Likidazioko salmenta txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari komunikatu beharko zaio, salmentari ekin baino hamar egun balioudun lehenago, Nafarroako Gobernuaren webgunean eskuragarri dagoen eredu normalizatuari jarraikiz. Jakinarazpen hori merkataritza-lokalaren kanpotik ikusteko moduan jarri beharko da.

4. Likidazioko salmentaren iraupena urtebetekoa izanen da gehienez. Hurrengo hiru urteetan ezin izanen da aurrekoaren antzeko produktuen beste likidazio bat egin establezimendu berean, salbu eta azken likidazio hori epaileak

edo administrazioak agindu badu, jarduera erabat eten bada edo ezinbestek bultzatuta egiten bada.

5. Likidazioko salmenta lehenago amaitu beharko da beti hura eragin zuen arrazoia desagertzen bada edo likidazioaren xede diren produktu guztiak likidatzen badira.

6. Likidazioko salmenten iragarkietan likidazioaren arrazoia adierazi beharko da.

43. artikulua. Salmenta oparidun edo primaduna.

1. Salmenta oparidunak dira salmentak sustatze aldera sari bat eskaintzen dutenak, edozein eratakoa, izan automatikoki edo izan zozketa edo lehiaketa batean parte hartuta.

2. Salmenta primadunak dira ondasun bat erosteagatik pizgarri edo abantailaren bat eskaintzen dutenak.

Oparia edo prima duten salmentak desleialtzat jotzen dira Lehia Desleialaren Legean aurreikusitako kasuetan.

3. Pizgarri hori zozketa bat denean, foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko da, hargatik eragotzi gabe Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legean edo hori ordeztzen duenean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoa.

4. Opariak edo sustapen-pizgarriak gehienez hiru hilabeteko epean entregatu beharko zaizkie erosleei, erosleak baldintzak betetzen dituen unetik zenbatzen hasita.

44. artikulua. Eskaintzetako eta sustapenetako salmentak.

Sustapeneko edo eskaintzako salmentatzat jotzen dira produktu jakin batzuen salmenta edo saltoki edo establezimendu baten edo batzuen garapena

sustatze aldera ohi baino prezio txikiagoan edo baldintza hobeetan egiten diren salmenta pribatuak eta aurrezalmentak, salmenta sustatzeko beste modalitatearen batean sartzen ez direnak.

III. KAPITULUA. Salmenta debekatuak: galerazko salmentak eta salmenta piramidala.

45. artikulua. Galerazko salmentak.

Ezin izanen da galerazko salmentarik eskaini edo egin salmenta horiek desleialtzat jo badira. Salmenta bat desleialtzat jotzeko, Txikizkako Merkataritza Antolatzeako urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 14. artikuluan eta Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 17. artikuluan edo hori ordeztzen duen araudian xedatutakoa bete beharko da.

46. artikulua. Salmenta piramidala.

Jardunbide desleial eta engainagarritzat jotzen da, nolanahi ere, salmenta-plan piramidal bat sortzea, zuzentzea edo sustatzea, non kontsumitzaileek edo erabiltzaileek kontraprestazio bat egiten duten konpentsazio bat jaso ahal izateko, funtsean, beste kontsumitzaile edo erabiltzaile batzuk planean sartzearen truke, eta ez ondasunen salmentaren edo horniduraren truke.

V. TITULUA: MERKATARITZA-ORDUTEGIAK

I. KAPITULUA. Merkataritza-ordutegien araubide orokorra.

47. artikulua Ordutegi-askatasuna eta ordutegiak agerian jartzeko betebeharra.

1. Indarrean dagoen legerian definitutako esparruaren barruan, merkatarik bakoitzak erabakiko du zer ordutan ireki eta itxiko dituen salgaiak saldu eta, kasua bada, banatzeko merkataritza-establezimenduak.

2. Saltokiek irekiera-ordutegia erakutsi behar dute, jendeak ikusteko moduan, baita itxita daudenean ere.

48. artikulua Lanegunetako ordutegia: eguneko maximoa eta asteko maximo globala.

1. Merkataritza-establezimenduak lanegunetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeina gehienez ere eguneko 15 ordukoa izanen baita, merkataribakoitzak libreki hautatuko du.

2. Saltokiek asteko lanegunetan beren jardueran aritzeko duten ordutegi orokorra ezin izanen da laurogeita hamar ordu baino gehiagokoa izan, eta lan arautegiari lotuko zaio.

49. artikulua. Igande eta jaiegunetan irekitzea.

1. Igandeak eta jaiegunak ez dira baliiodunak izanen Nafarroako Foru Komunitatean merkataritza-jarduera garatzeko, espresuki baimenduak izan ezik.

2. Saltokiak gehienez hamar igande eta jaiegunetan egon daitezke jendearentzat zabalik, hargatik eragotzi gabe ordutegi-araubide berezia duten establezimenduetarako xedatutakoa. Hala eta guztiz, Estatuaren esparruan eta arau-aldaketa baten ondorioz, aldatuko balitz saltokiak jendearentzat zabalik egon daitezkeen igande eta jaiegunen gutxieneko kopurua, merkataritzaren arloko eskumena duen departamentuak, hurrengo apartatuan jasotako prozedura errespetatuz, Estatuaren oinarritzko legeriak ezarritako muga berri horretara egokituko du egutegia.

50. artikulua Irekiera librekotzat jotzen diren igande eta jaiegunen urteko egutegia ezartzeko prozedura.

1. Txikizkako merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak, urte bakoitzeko urriaren 15a baino lehen, eta Nafarroako Merkataritza

Kontseiluari entzun ondotik, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, non zehaztuko baitira irekiera librekotzat jotzen diren igande eta jaiegunak. Hamar igande eta jaiegun izanen dira irekiera librekoak.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren irekiera libreko igandeak eta jaiegunak zehazteko, Nafarroako Foru Komunitateak hilabete bakoitzeko egun baliodun bat ezarriko du gehienez, abenduan izan ezik, hilabete horretan bi egun baliodun ezarri ahal izanen baitira.
3. Udalerriek, beren udal-mugartean kokatutako saltoki guztietarako, urte bakoitzerako baimendutako irekiera libreko igande eta jaiegun guztietatik gehienez bi ordeztu ditzakete, hurbileko merkataritza sustatze aldera. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte: a) Ordeztu nahi diren igandeen edo jaiegunen berri ematea merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari, ordeztu nahi den data eta proposatzen den data berria baino gutxienez 60 egun natural lehenago. Nolanahi ere, aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen egin behar da jakinarazpen hori. Udalariei eginiko komunikazioan, azaldu beharko du zer hobekuntza dakartzkion aldaketa horrek udalerriko hurbileko merkataritzari. b) Udalerriak igande eta jaiegunetako ordeztapenen berri eman beharko du, ordeztu nahi den eguna eta proposatutako data berria baino 30 egun natural lehenago gutxienez, eta aldaketak udalaren webgunean argitaratu beharko ditu.

II. KAPITULUA. Merkataritza-ordutegien araubide berezia.

51. artikulua. Ordutegia ezartzeko askatasuna duten saltokiak.

1. Estatuaren oinarrizko legeriaren arabera, jendeari irekitzeko egunak eta orduak zehazteko askatasun osoa izanen dute pastelak eta gozokiak, ogia, prestaturiko jakiak, erregaiak, loreak eta landareak saltzen dituzten saltokiek, komenentziako denda deritzenek, eta muga-postuetan, lurreko

eta aireko geltokietan eta garraiobideetan eta turista-olde handiko eremuetan kokatuta daudenek.

2. Aurreko saltokiak ez bezalako saltoki txikiak, 300 metro koadro baino gutxiagoko merkataritza-azalera erabilgarria dutenak; multzo horretatik kanpo gelditzen dira indarreko legeriaren arabera enpresa txiki eta ertaintzat hartzen ez diren banaketa-enpresa edo -taldeenak.
3. Foru lege honen ondorioetarako, banaketa-talde baten parte dira baldintza hauetakoren bat betetzen duten merkataritza-establezimenduak:
 - a) Merkataritza Kodearen 42. artikuluan zerrendatutako nagusitasun-edo mendekotasun-egoeretako batean dauden enpresen jabetzakoak izatea.
 - b) Erabaki- eta kudeaketa-unitate beraren agindupean jarduten duten enpresen jabetzakoak izatea, eta enpresa jabe horiek ezarritako estrategia normal bateratu bat garatzera behartuta egotea, marka komun baten pean.

52. artikulua. Merkataritza-ordutegiei buruzko araudi espezifikoak duten saltokiak.

Farmaziako bulegoek, baita estankoez ere, beren berariazko araudia beteko dute, eta, halakorik ezean, foru lege honetako xedapenak aplikatuko dira.

53. artikulua. Kultura- eta turismo-produktuak soilik saltzen dituzten establezimenduak.

Kultura- eta turismo-produktuak soilik saltzen dituzten establezimenduek eta mota horretako zerbitzuak eskaintzen dituztenek ordutegi-askatasuna izanen dute.

54. artikulua Turista-olde handiko eremuak finkatzea.

1. Turista-olde handiko eremutzat hartuko dira udalerri osoko edo udalerriaren zati bateko eremuak, baldin eta haietan inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Nahikoa ostatu-plaza eta turismo-establezimendu izatea, kuantitatiboki zein kualitatiboki, edo nahikoa bigarren etxebizitza, ohiko etxebizitzaren kopuruaren aldean.
- b) Gizadiaren ondare izendatu izana edo historia- eta arte-ondareko kultura-intereseko higiezinaren bat izatea.
- c) Mugako zonetako eragin-eremuak izatea edo haien mugakideak izatea.
- d) Estatu-mailako edo nazioarteko kirol- edo kultura-ekitaldi handiak egitea.
- e) Erakargarritasun nagusia erosketa-turismoa duten gunek izatea.
- f) Turista-olde handiko gunea izatea justifikatzen duten inguruabar bereziak izatea.

2. Zerrendatutako inguruabarrak betetzen badira eta udal interesdunak turista-olde handiko gune izendatzeko egindako proposamenean denbora- edo lurralde-mugarik badago, proposamenean bertan justifikatu beharko da zertan oinarritzen diren denbora- edo lurralde-muga horiek, merkataritzaren eta turismoaren interesekin bat etorritik eta kontsumitzaileen mesedetan. Merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren iritziz muga horiek ez badaude behar beste justifikatuta, udalerri osoa izendatuko da turista-olde handiko gune, urte osorako.

Baldin eta, hiru hilabeteko epean, merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak ez badu ebatzen udal interesdunaren eskaera, udal horrek proposatutako gunea turista-olde handiko gune izendatutakotzat hartuko da.

3. Nolanahi ere, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, baldin eta aurreko urtean 600.000 ostatu-gau baino gehiago erregistratu badituzte, eremu bat, behintzat, turista-olde handiko gunetzat joko da, aurreko apartatuko

irizpideak aplikatuta. Datu estatistiko horiek lortzeko, Estatistikako Institutu Nazionalaren argitalpenetara joko da.

Baldin eta sei hilabeteko epean, datu horiek argitaratzen direnetik, Nafarroako Foru Komunitateak ez badu turista-olde handiko eremuren bat deklaratu aurreko paragrafoan adierazitako inguruabarrak hartzen dituen udalerrian, horrelako eremutzat udalerrri osoa deklaratu dela ulertuko da, eta merkatariek askatasun osoa izanen dute urte osoan establezimenduak irekitzeko.

III. KAPITULUA. Edari alkoholodunak saltzen dituzten merkataritza-establezimenduak.

55. artikulua. Edari alkoholodunak saltzeko ordutegia mugatzea.

1. Udalek edari alkoholodunak saltzen dituzten establezimenduei debekatzen ahalko diete, aplikatzekoa zaien irekiera-ordutegia gorabehera, edari horiek saldu, banatu, hornitu edo ematea 22:00etatik hurrengo eguneko 7:00ak bitarte. Debeku hori ezartzeko, ordena publikoan, segurtasunean eta osasunean oinarritutako arrazoiak eman beharko dira, eta debekuak udal-mugarte guztian izanen ditu ondorioak.
Debeku horren barruan sartzen dira, halaber, kaleko salmenta, urrutiko salmenta eta etxez etxeko salmenta.
2. Udalek, debekatze-erabakian eta arrazoiak emanez, muga hori kentzen ahalko dute tokiko jaietan edo egoki iritzitako beste data batzuetan.
3. Alkohola saltzen duten saltokiek, 22:00etatik hurrengo eguneko 7:00etara irekita badaude, kartel bat izan beharko dute denbora-tarte horretan alkohola saltzea debekatuta dagoela adierazteko. Kartel hori toki entitateak berak emanen du.
4. Aurreko apartatuko ordutegi-mugatik kanpo gelditzen dira kasu hauek:
 - a) edari alkoholodunen hornidura barruan kontsumitzeko establezimenduetan edo behar bezala baimendutako terrazetan.
 - b) edari alkoholodunen banaketa txikizkako saltokietan eta profesionalen artean.

VI. TITULUA: HURBILEKO MERKATARITZARI LAGUNTZEKO

NEURRIAK

56. artikulua. *Hurbileko merkataritza sustatzea.*

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zaindu eta sustatu egingen du hurbileko hiri-merkataritza, kohesio ekonomikoa eta soziala eta lurralde-kohesioa indartzearen.

57. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jarduketak hurbileko merkataritza sustatzeko.

Besteak beste, jarduketa hauek egingen ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hurbileko merkataritza sustatzeko eta babesteko:

- a) Aldiro-aldiri eta sektorearekin koordinatuta, hurbileko txikizkako merkataritza sustatzeko plan estrategiko bat egitea. Plan horrek koherentea izan beharko du foru lege honen helburuekin eta printzipio gidariekin.
- b) Ekimen ekintzaileak sustatzea, merkataritza-ekintzailatza eta belaunaldi-erleboak akuilatzea.
- c) Hurbileko merkataritza garatzen, modernizatzen eta hobetzen laguntzea, eta, bide horretan, haren energia-efizientzia eta digitalizazioa areagotzea, eta kalitate-sistemak ezartzea.
- d) Desgaitasunen bat dutenak ordeztu dituzten entitateekin koordinatuta, pertsona guztientzat irisgarria izan den merkataritza fisiko eta elektronikoa sustatzea, eta, bide horretan, irisgarritasunerako oztopo fisiko, kognitibo eta sensorialak desagerraraztea.
- e) Zero kilometroko produktuak sustatzea, hau da, produkzio-tokiaren eta salmenta-puntuaren arteko distantzia txikia ezaugarri duten produktuak.
- f) Jasangarritasuna, eta gizarte-, ingurumen-, ekonomia- eta instituzio-kohesioa bultzatzea, baliabide guztiak eraginkortasunez berreskuratzea ahalbidetuko duen ekonomia zirkular eta jasangarriaren eredu baten oinarri gisa.

- g) Landa-eremuan, batez ere jendez husten ari diren eremuetan, hurbileko merkataritza eta kaleko salmenta sustatzea.
- h) Zaintzea hurbileko merkataritzaren defentsa, eta, ondorioz, baita merkataritza-hirigintzarena ere, erreala eta eraginkorra izan dadin Lurraldearen Antolamenduko eta Hirigintzako Batzordean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onetsi beharreko hirigintza- eta lurralde-antolamendurako tresnak formulatu, onartu eta gauzatzean.
- i) Merkataritza-jarduera profesionalizatzea eta krisialdian erresilientea izatea sustatzeko mekanismoak ezartzea.
- j) Emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna sustatzea, bai eta, oro har, lan-eskubideak eta, bereziki, laneko arriskuak prebenitzeko arauak errespetatzea ere.
- k) Administrazioen arteko lankidetzak, koordinazioa eta elkarreragingarritasuna sustatzea, administrazio-izapideak ahalik eta sinpleenak izan daitezen lortzeko, formula eta bitarteko elektronikoen bidez.
- l) Balio historikoko merkataritzaren edo establezimendu enblematikoen babesa, hedapena eta ezagutza sustatzea. Foru lege honen ondorioetarako, saltoki enblematiko edo historikotzat jotzen da 100 urte baino gehiagoz merkataritzan aritu den establezimendua. Txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak aipamen berezia eta aitorpen instituzionala emanen die ehun urtetik gorako saltokiei.
- m) Aldian-aldean, hurbileko merkataritzaren balio eta printzipioen inguruko sentsibilizazio eta hedapen kanpainak egitea.
- n) Merkataritza sustatzeko kanpaina guztietan, hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabil dadin sustatzea, eta berdintasunezko irudia bultzatzea, genero-rolak erreproduzitzen ez dituenak, eta emakumeen nahiz gizonen irudi askotarikoa eskaintzea.

- o) Toki entitateekin koordinatuta, merkataritza-asoziazionismoa eta ekonomia sustatzeko arloak sustatzea.

58. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jarduketak landa-eremuan hurbileko merkataritza sustatzeko eta babesteko.

1. Nafarroako administrazio publikoek lurralde-kohesioa sustatuko dute. Horretarako, lurralde-oreka handiagoa ziurtatzeko neurriak hartuko dituzte, eta Nafarroako Foru Komunitatean merkataritza-eskaintza irigarria eta askotarikoa eskaintzen dela zainduko dute.
2. Nafarroako Administrazio Publikoek honako neurri hauek hartzen ahalko dituzte tokiko merkataritza babesteko:
 - a) Landa-merkataritza bultzatzea, lehen mailako jarduerak behar duen osagarria den heinean.
 - b) Merkataritzaren arloan, energia-komunitateak sustatzea, eraldaketa komunitarioko bulegoen bidez.
 - c) Merkataritza-, zerbitzu- eta ostalaritza-jarduerak sustatzea, bai eta turismoaren eta merkataritzaren arteko sinergiak ere.
 - d) Enpresendako leihatila bakarraren ezagutza eta erabilera sustatzea, bai negozioen txandaketan, bai landa-merkataritzaren sustapenean.
 - e) Landa-ingurunean merkataritza-proiektuak edo -ekimenak gauzatu daitezen sustatzea, ingurunearekiko bateragarritasun-irizpideak oinarri hartuta, eta gure herrien lehiakortasuna eta potentzialak areagotzea helburu hartuta.
 - f) Landa-eremuetako exodoa (batez ere emakumeena) gutxitzen eta hurbileko merkataritza lehenesten lagunduko duten programak sustatzea.

- g) Errotzea indartzea, zero kilometroko produktuak kontsumitzea eta landa-eremuetan enplegua sortzea oinarritzat dituen merkataritza-sektoreari laguntzea.
- 3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateek politika komunak koordinatuko dituzte jendez hustutako eremuetan merkataritza irisgarria eta jasangarria sustatzeko.

59. artikulua. Hurbileko merkataritza sustatzeko entitate laguntzaileak.

- 1. Hurbileko merkataritza sustatze eta defendatze aldera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, indarrean dagoen legeriaren esparruan, jotzen ahalko du merkatarien enpresa elkarteetara, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialera, tokiko ekintza taldeetara eta, bere eskumenen esparruan, elkargo profesionaletara.
- 2. Entitate laguntzaile horiek egiten dituzten jarduerak osagarriak edo lagungarriak izanen dira, eta inola ere ez dute berekin ekarriko administrazio-ahalak baliatu ahal izatea.

VII. TITULUA: NAFARROAKO MERKATARITZA KONTSEILUA

60. artikulua Nafarroako Merkataritza Kontseiluaren izaera, atxikipena eta eginkizunak.

- 1. Nafarroako Merkataritza Kontseilua kontsultarako, partaidetzarako eta aholkularitzarako organo bat da. Bere eginkizun nagusia da Merkataritzako Foru Legea garatzea, bereziki kontseilu horren parte-hartzea berariaz aurreikusita dagoen alderdietan. Txikizkako merkataritzaren arloko eskumena duen departamentuari atxikita dago.
- 2. Hauek izanen dira Nafarroako Merkataritza Kontseiluaren eginkizunak:

- a) Arloko administrazio eskudunek merkataritzari buruz eskatutako txostenak eta kontsultak egitea.
- b) Merkataritza-sektorearen gaineko foru lege proiektuei buruz eta Nafarroako Gobernuaren gainerako xedapenei buruzko txostenak egitea.
- c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari gomendatzea merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak bultzatu eta onetsitako sustapen-neurriak hobetzeko egokitzen jotzen diren neurri eta ekintza oro.
- d) Nafarroako Foru Komunitatean merkataritza-irekiera librekotzat jotzen diren igande eta jaiegunen urteko egutegia zehazteko prozedurari buruzko txostenak egitea.
- e) Legez edo erregelamenduz ezartzen den beste edozein eginkizun, eta, oro har, haren izaerarekin bat datozenak.

61. artikulua. Osaera eta erregelamendu bidezko garapena.

1. Haren osaeran, parekotasuna betetzen dela zaindu beharko da, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legeari jarraikiz. Erakunde, instituzio eta gizarte-solaskide hauek parte hartuko dute:

- a) Nafarroako Foru Komunitatea.
- b) Toki-administrazioa, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez.
- c) Merkataria, ordezkari gehien dituzten elkarte eta federazioen bidez.
- d) Enpresaburuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bidez.
- e) Behar bezala ordezkaturako elkarteak, sektoreko eragile ekonomiko eta sozialak (foru komunitatean ordezkartutakoak), eta, haien artean, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako

Merkatari Elkarteen Federazioa, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak eta Nafarroako Foru Komunitatean ordezkaritza duten erakunde sindikalak, Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 7/1985 Lege Organikoaren 7.2 artikulua arabera, eta sektorean presentzia duten enpresa-erakundeak.

2. Nafarroako Gobernuak, aurrekontuetako mugen barrenean, behar diren bitarteko ekonomikoak jarriko ditu Merkataritzaren Kontseiluko kideek eskatutako azterlan eta txostenak garatzeko eta, bereziki, ordezkaritza duten eragile ekonomiko eta sozialek sektoreari laguntzeko proposaturiko neurriak lortze aldera interesekoak diren azterlanak egiteko.

VIII. TITULUA

Ikuskatze-funtzioa eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea

I. KAPITULUA

Txikizkako merkataritzaren ikuskaritza

62. artikulua. Merkataritzaren ikuskapena eta ikuskapen plana.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek, beren eskumenen esparruan, behar diren ikuskatze-, zaintza- eta kontrol-funtzioak beteko dituzte merkataritza-jardueraren eta establezimenduen gainean.
2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan txikizkako barne-merkataritzaren arloko eskumena duen departamentuak merkataritza-jarduera eta jarduera horren arduradunak aztertu, kontrolatu eta zaintzen ditu, merkataritzaren arloko araudi aplikagarrian xedatzen dena betetzen dela egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe beste organo eta administrazio publiko batzuek beren eskumenak erabiliz egin beharreko jarduketak.

3. Txikizkako barne-merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak txikizkako merkataritzaren arloko ikuskapen plan bat onetsi ahal izanen du. Plan hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta haren eginkizunetako bat izanen da merkatariei orientazioa ematea txikizkako merkataritzaren arloan indarrean dagoen legeriaren inguruan, hobeki informatuta egon daitezen eta, legedi horrek zuzenean mesede egin diezaien bai merkatariei bai kontsumitzaileei.
4. Toki entitateei dagokie 22:00etatik hurrengo eguneko 7:00etara edari alkoholduak saltzeko, banatzeko, hornitzeko edo entregatzeko debekua (toki entitateek berek ezarritakoa) betetzen dela kontrolatzea eta ikuskatzea, bai eta ez-betetzeen kasuan zehapenak ezartzea ere.
Toki entitateei dagokie salmenta ez-sedentario edo ibiltaria kontrolatzea, ikuskatzea eta zehatzea.
5. Foruzaingoak eta gainerako segurtasun-indar eta -kidegoek, beren eskumenen esparruan eta ahal duten neurrian, merkataritzako foru araudia betetzen lagunduko dute, ikuskatze- eta salatze-jardueren bidez.

63. artikulua. Ikuskaritzako langileak eta haien ahalmenak.

1. Ikuskatze-lanak, hala badagokio, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileek egingen dituzte. Langileok aplikatzekoa den merkataritza-araudiaren arloko jarduketetan ikuskatze-funtzioa esleitua duen organo bati atxikita egon behar dute.

2. Ikuskatze-lanak egiten dituztenek honako ahalmen hauek izanen dituzte beren eginkizunak aurrera eramateko:

- a) Edozein unetan sartzen ahalko dira ikuskatu behar dituzten merkataritza-establezimenduetara edo enpresetara.

b) Beren jarduera gauzatzeko behar duten denboran, establezimenduko titularrei edo arduradunei ikuskapenera bertaratzeko eskatzen ahalko diete.

c) Merkataritza-establezimenduaren titularrei edo arduradunei informazioa eskatzen ahalko diete, aplikatzekoa den merkataritza-araudia betetzearekin lotutako edozein gairi buruz.

d) Merkataritza-establezimenduaren, -enpresaren edo -jardueraren zerbitzura dauden langileei informazioa eskatzen ahalko diete, titularra bertan ez badago.

e) Beharrezkotzat jotzen dutenean, beste administrazio publiko batzuen mendeko langileen eta zerbitzuen lankidetza eskatzen ahalko dute, baita segurtasun-indar eta -kidegoena ere.

3. Merkataritza-jarduera ikuskatzeko eginkizuna duten langileek beren burua behar bezala identifikatu beharko dute, eta ikuskatzaile direla egiaztatu.

4. Foru Komunitateko Administrazioko langileek, ikuskatze-lanetan ari direlarik, agintaritza-agentearen izaera izanen dute.

5. Ikuskatze-funtzioa administrazio publikoaren diskrezio-ahalaren esparruan beteko da, eta langile jarduleak proportzionaltasun-, konfidentzialtasun-, eraginkortasun- eta erreserba-printzipioak errespetatu beharko ditu.

64. artikulua. Ikuskapen aktak.

1. Merkataritza-ikuskaritzaren bisita bakoitzeko akta bat egingen da. Akta horretan jasoko dira egindako ikerketa- eta egiaztapen-jarduketak eta haien emaitzak, bai eta garrantzitsutzat jo diren gertakariak edo inguruabarrak ere. Aktetan jasoko da zer ikuskatu den eta ustezko arau-hauslearen identifikazioa, eta, hala badagokio, gainerako erantzule posibleena. Halaber, ikuskatutako lekua

eta langile jarduleek egiaztatutako egitateak jasoko dira. Orobat, aktei eranskin gisa eranstean ahaliko zaizkie bertan jasotako arau-haustea frogatzen edo indartzen dituzten dokumentuak edo haien kopiak.

2. Ahal den guztietan, merkataritza-establezimenduaren, -enpresaren edo -jardueraren titularraren, edo arduradun edo legezko ordezkarien aurrean egingen dira aktak edo, hala badagokio, edozein langileren aurrean. Pertsona horiek aukera izanen dute aktetan egoki iritzitako guztia agerrarazteko eta akta horiek sinatzeko. Kasu guztietan, ikuskatzaile jarduleek sinatu beharko dituzte aktak.

3. Ikuskapen aktak, behar bezalako bermeekin eginak, agiri publikotzat hartzen dira, eta froga-balioa dute kasuan kasuko administrazio-prozeduretan, datari, orduari, lekuari eta haietan adierazitako beste inguruabar eta egitateei dagokienez.

4. Akta egin zaion pertsonari akta horren kopia bat eman beharko zaio, eta aktan berariaz jaso beharko da inguruabar hori. Pertsona horrek uko egiten badio kopia onartzeari, aktan jasotzen ahaliko da inguruabar hori.

II. KAPITULUA.

Zehapen-araubidea.

1. atala. Arau-haustea eta erantzuleak.

65. artikulua Xedapen orokorrak.

1. Merkataritza-jardueraren arloko arau-hauste administratiboak dira foru lege honetan edo merkataritzari buruzko Estatuko legerian tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak. Nolanahi ere, horrek ez du eragozten ekintza horiek erantzukizun zibil edo penalak ere izatea.

2. Arau-haustea arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke, hurrengo artikuluetan ezarritako tipifikazioaren arabera.

66. artikulua. Arau-hauste arinak.

Honako hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Ez erakustea aurretiazko baimena, lizentzia, jakinarazpena, fidantza edo bermea, aplikatzekoa den merkataritza-araudiak xedatutako moduan.
- b) Merkataritza-establezimenduak irekitzeko eta ixteko egunak eta orduak jendeari jakinarazteko betebeharra ez betetzea, edo jakinarazpen hori ez jartzea establezimenduaren kanpotik ikusteko moduko leku batean. Arau-hauste arina da, halaber, merkataritza-araudi aplikagarrian erosleei informazioa emateko aurreikusitako beste betebeharrak batzuk urratzea, baldin eta urraketa hori arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta ez badago.
- c) Handizkako eta txikizkako merkataritza-jarduera aldi berean egitea, behar bezala eta argi eta garbi bereizi gabe, edo foru lege honetan xedatutakoa bete gabe.
- d) Erosleekiko transakzio ekonomikoetan betebeharrak formalak ez betetzea, fakturak edo ordezkoko agiriak ez jaulkitzeari eta haien edukari dagokienez, merkataritza-araudiak faktura horiek entregatzea eskatzen badu edo eskaera hori kontsumitzaileak egiten badu.
- e) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibek eta ekonomatu edo antzekoek foru lege honetan xedatutakoa ez betetzea.

Merkataritza-araudi aplikagarrian jasotako beste edozein manu urratzea, urraketa hori ez badago arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta.

67. artikulua. Arau-hauste astunak.

Arau-hauste astunak hauek izanen dira:

- a) Merkataritza-jarduera bat aldeztu aurreko baimenik gabe gauzatzea, baimen hori nahitaezkoa denean.

- b) Uko egitea, trabak jartzea edo aurka egitea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako agintariek, haien agenteek edo langileek beren ikuskatze-lanak gauzatzeko eskatzen dituzten datuak edo informazioa emateari, bai eta zehatza edo osoa ez den edo faltsua den informazioa ematea ere.
- c) Arauak hausten dituzten jarduerak eteteko errekerimendua ez betetzea.
- d) Merkataritza-establezimendu handi bat jartzeko edo handitzeko lurraldeko merkataritza-txostenik gabe gauzatzea merkataritza-jarduera, lizentzia hori nahitaezkoa den kasuetan, edo lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzea.
- e) Merkataritza-jarduera ez-iraunkorretan aritzean, ez betetzea foru lege honetan xedatutakoa, salbu eta ez-betetze hori foru lege honetan tipifikatutako beste arau-hauste mota bat denean.
- f) Salmentak merkataritza-establezimendurik gabe egitean, ez betetzea aplikagarri den merkataritza-araudian salmenta mota horri ezartzen zaizkion baldintzak eta mugak, salbu eta ez-betetze hori foru lege honetan tipifikatutako beste arau-hauste mota bat denean.
- g) Merkaturatzeko baimenik ez duten produktuak saltzea bigarren eskuko produktuak saltzeko establezimendu eta merkatuetan.
- h) Ez betetzea aplikatzekoa den merkataritza-araudian ezarritako irekiera-ordutegien araubide orokorra.
- i) Sustapen-jardueretan, gezurra esatea eskaintzaren publizitatean, edo ez betetzea aplikagarria den merkataritza-araudian eta foru lege honetan jarduera horietarako ezarritako baldintzak eta eskakizunak.
- j) Galerazko salmenta egitea, merkataritza-araudi aplikagarrian salmenta mota horretarako ezarritako baldintzak eta eskakizunak bete gabe.
- k) Administrazio publikoaren alde aurreko baimena behar duten ondasun edo zerbitzu jakin batzuetarako zehaztutako prezioak eta tarifak gainditzen dituzten zenbatekoak eskatzea.

- l) Edari alkoholdunak baimendutako ordutegitik kanpo saltzea, banatzea, hornitzea edo ematea.
- m) Azoka edo lehiaketen publizitatea egitean, hiri-altzariak aurretiazko baimenik gabe erabiltzea.
- n) Entregak hiri-eremuetan egitearen ondorioz merkataritza elektronikoak sortzen dituen kanpo-efektu negatiboak arintzeko toki entitateek ezarritako neurriak ez betetzea.
- o) Urtebeteko epean izaera bereko hiru arau-hauste arin baino gehiago egiteagatiko berrerortzea, administrazio-ebazpen irmoz halakotzat deklaratu denean.

68. artikulua. Arau-hauste oso astunak.

Hauek dira arau-hauste oso astunak:

- a. Merkataritzako erreserbak erabiltzea foru lege honetan berariaz debekatuta dauden helburuetarako.
- b. Aurreko artikuluan zehaztutako arau-hauste astunen bat egitea, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:
 - Pertsonen, ondasunen edo ingurumenaren osasunerako edo segurtasunerako arrisku larria egotea.
 - 500.000 eurotik gora fakturatzea.
- b. Hiru urteko epean izaera bereko arau-hauste astun bat baino gehiago egiteagatik berrerortzea, administrazio-ebazpen irmo baten bidez halakotzat deklaratu denean.

69. artikulua. Pertsona erantzuleak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hauste administratiboen erantzule izanen dira:

- a) Merkataritza-enpresa, -establezimendu edo -jardueraren titular diren pertsona fisiko edo juridikoak; kontrako frogarik ezean, merkataritza-lizentzia, jarduera-lizentzia edo lizentzia fiskala beren izenean dutenak izanen dira.
- b) Nahitaezko merkataritza-lizentziarik, jarduera-lizentziarik edo lizentzia fiskalik izan gabe jarduera gauzatzen duten edo merkataritza-establezimenduak irekita dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
- c) Egitez edo ez-egitez foru lege honetan xedaturikoa urratzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Merkataritza-enpresa, -establezimendu edo -jardueraren titularra izanen da, foru lege honen ondorioetarako, bere zerbitzuko langileek egindako arau-hausteen erantzule subsidiarioa, baldin eta ustezko erantzulearen aurka jardun bada eta ezin izan bada egiaztatu haren erantzukizun zuzena.

2. atala. Zehapenak, neurri osagarriak eta isun hertsatzaileak.

70. artikulua Zehapenak.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren aurkako arau-hausteengatik ezarritako zehapenak proportzionaltasun-irizpideen arabera izanen dira, arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunari dagokionez, eta bereziki kontuan hartuko dira 74. artikuluan ezarritako inguruabarrak.

2. Ezin izanen da inola ere zehapen bat baino gehiago ezarri egitate berberengatik eta babestutako interes publiko berberen arabera.

3. Arau-haustek isunen bidez zehatuko dira, mailaketa honi jarraikiz:

- a) Arau-hauste arinak, ohartarazpena edo 5.000 eurora arteko isuna.
- b) Arau-hauste oso astunak, 5.001 eta 25.000 euro bitarteko isunak.
- c) Arau-hauste oso larriak, 25.001 eta 600.000 euro bitarteko isunak.

71. artikulua. Zehapenen mailaketaren aldaketa.

1. Arau-haustearen ondorioz isuna gainditzen duen etekin ekonomikoa lortzen bada, zehapenaren zenbatekoa handitzen ahalko da eragiketan berariaz lortutako irabazia halako bi izan arte.

2. 74.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarra gertatzen bada, administrazio-organo eskudunak, arau-hauste mota guztietan, kasuan kasuko zehapena murrizten ahalko du. Zehapena, betiere, ezin izanen da zehapen horren beheko mugaren ehuneko 20a baino txikiagoa izan. Apartatu hau aplikatzeko, berariaz arrazoitu beharko da aringarriaren kualifikazioa, eta ziurtatu beharko da ez zaiela hirugarrenei kalterik egin eta ez dela urratu berdintasun-printzipioa.

72. artikulua. Neurri osagarriak: aldi baterako itxiera eta behin betiko itxiera.

Arau-hauste oso astunak, kontsumitzaileen osasunarentzat eta segurtasunarentzat edo ingurumenarentzat arrisku handia dakartenak, edo kalte ekonomiko handia eragiten dutenak edo gizartean eragin nabarmena dutenak honela zigortzen ahalko dira: merkataritza-enpresa edo -establezimendua aldi baterako itxiz edo arau-haustea egin den jarduera gehienez ere urtebetez etenda. Behin eta berriz hausten bada araua, establezimendua behin betiko ixten ahalko da.

73. artikulua. Arau-hauste edo zehapenen zehaztapenak.

Erregelamendu bidez, foru lege honetan aurreikusitako zehapenen taulan zehaztapenak edo mailaketak sar daitezke, zeinak ez baitira arau-hauste edo zehapen berriak izanen eta ez baitituzte aldatuko legean jada tipifikatuta dauden arau-hausteen izaera edo mugak, baizik eta lagunduko arau-hauste mota hobeki identifikatzen edo ezarri beharreko zehapenari zehaztasun handiagoa ematen.

74. artikulua. Zehapenak zehaztea.

Dagozkion zehapenek dakartzaten isunen zenbatekoa zehaztean, inguruabar hauek kontuan hartuko dira, aringarri edo astungarri izan daitezten:

- a) Arau-haustearen ondorioen erreparazioa, betiere hirugarrenei kalterik eragin ez bazaie.
- b) Lortu den legez kontrako etekinaren zenbatekoa, halakorik bada.
- c) Jokabide arau-hausleak gizartean duen garrantzia, eragin dituen ondorio sozioekonomikoen larritasuna, merkatuan duen eragina eta, hala badagokio, ukitutako pertsonen kopurua.
- d) Araua hausten igarotako denbora.
- e) Norainoko asmo edo arduragabekeria izan den arau-haustea egitean eta arau-hausteen errepikapena.
- f) Berrerortzea, inguruabar hori arau-hauste motaren deskribapenaren parte den kasuetan izan ezik.
- g) Arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa edo merkataritza-enpresa, -establezimendu edo -jardueraren fakturazio-bolumena.

75. artikulua. Isun hertsatzaileak.

1. Zehapen-organoak isun hertsatzaileak jar ditzake, legezkontasuna berrezartzeko bitarteko gisa.

2. Arau-hauste arin eta astunen kasuan, ezarritako zenbatekoak 100eko 10 handitzen ahalko dira arau-hausleak zehapena eragin zuen jarduera bertan behera utzi gabe igarotzen den egun bakoitzeko. Arau-hauste oso astunen kasuan, igoera hori 100eko 20koa izanen da.

3. Isun horiek elkarren segidan eta behin eta berriz jartzen ahalko dira, agindutakoa betetzeko behar den denbora-tartea utzita.

3. atala. Zehapen-prozedura.

76. artikulua. Zehatzeko ahala egikaritzea.

1. Arau orokor gisa, merkataritzaren arloko eskumena duen departamentuko organoei dagokie zehatzeko ahalmena, foru lege honekin bat, foru lege honetan ezarritako betebeharren arau-haustea dakarten ekintzen edo ez-egiteen gainean.

2. Toki entitateek eskumena dute gai hauei buruzko zehapenak izapidetzeko eta ezartzeko:

- a) Ez betetzea "dark stores" motako saltokien edo denda ilunen kokapen fisikoari buruzko baldintzak, toki entitateek ezarritakoak.
- b) Salgaiak hiri-inguruneetan jasotzeak eragiten dituen kanpo-efektu negatiboak konpentsatzeko toki-administrazio eskudunek adostutako neurriak ez betetzea.
- c) Toki entitateak 22:00etatik hurrengo eguneko 7:00ak arte edari alcoholdunak saldu, banatu, hornitu edo entregatzeko ezarritako debekua ez betetzea.

77. artikulua Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso astunek bost urteen buruan preskribatuko dute, astunek hiru urteren buruan eta arinek urtebeteren buruan; arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenek bost urteren buruan preskribatuko dute, arau-hauste astunengatik ezarritakoek hiru urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek urtebeteren buruan.

2. Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen.

3. Arau-hauste jarraituak egiten direnean, preskripzio-epea jarduera bukatzen denetik edo arau-haustearen azken egitetik aurrera hasiko da zenbatzen. Arau-haustek iraunkorrak direnean, epea legez kontrako egoera

ezabatzen den egunean hasiko da zenbatzen. Arau-haustearen egitate edo jarduerak ezezagunak direnean kanpoko zeinurik ez dutelako, epe hori zeinuok azaltzen direnetik aurrera hasiko da zenbatzen.

4. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioari dagozkion gainerako gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoari helduko zaio.

78. artikulua. Zehapen-prozedura.

1. Txikizkako merkataritzaren arloko arau-hausteak egiteagatik zehapenak ezarriko dira dagokien prozedura instruitu ondotik eta bat etorrita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoarekin. Toki entitateei dagokienez, zehapen-prozedurak tramitatzeko, aplikatzekoa den legerian ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

2. Zehapen-prozeduran ebazpena emateko eta jakinarazteko epea urtebetekoa izanen da, espedientea hasteko administrazio-ebazpena ematen den egunetik hasita.

3. Ebazteko eskumena duen organoak erabakitzen ahalko du, ebazpen administratibo arrazoitu baten bidez eta behar bezala justifikatutako arrazoi batengatik, aplikatzekoa den gehieneko epea luzatzea, gehienez ere sei hilabetez.

79. artikulua. Organo eskudunak.

1. Txikizkako merkataritzaren arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiak ebatziko ditu zehapen-prozedurak arau-hauste arinak edo astunak direnean, eta merkataritzaren arloko eskumena duen departamentuaren

titularrak, berriz, arau-hauste oso astunen kasuan. Dena dela, 200.000 eurotik gorako isuna dakarten arau-hauste oso astunak direnean, eskumena Nafarroako Gobernuarena izanen da.

2. Toki entitateen araudiaren arabera eskumena duen toki-organoari dagokio salmenta ibiltariaren arloko eta toki entitateek berek berariaz debekatutako gaien arloko zehapen-prozedura hastea eta ebaztea.

Lehen xedapen gehigarria. Foru agindu bidez zehapenak eguneratzea.

Foru lege honetan ezarritako zehapenen zenbatekoa aldian-aldian eguneratzen ahalko da, txikizkako barne-merkataritzaren arloko eskumena duen kontseilariak emandako foru agindu baten bidez.

Bigarren xedapen gehigarria. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 56.1 artikulua aldatzea.

Idazketa berria ematen zaio Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duen abenduaren 12ko 34/2022 Foru Legearen 56.1 artikuluari. Hona hemen: *“Ikuskatze-lanak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileek egingen dituzte. Langileok aplikatzekoa den merkataritza-araudiaren arloko jarduketetan ikuskatze-funtzioa esleitua duen organo bati atxikita egon behar dute”*.

Lehen xedapen iragankorra.

Foru lege hau ez zaie aplikatuko merkataritza-establezimendu handiei buruzko udalez gaindiko plan sektorialeiei baldin eta plan sektorial horiek foru lege hau indarrean sartu aurretik behin betiko onetsi badira merkataritzako eta lurralde-antolamenduko eremuetan.

Bigarren xedapen iragankorra.

Foru legea indarrean sartu aurretik aurkeztutako udalaz gaindiko plan sektorialak, baldin eta foru legea indarrean sartzean behin betiko ebatzita ez

badaude, Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legean ezarritakoaren arabera tramitatuko dira gero ere.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Lehendik zeuden merkataritza-establezimendu handiak edo handitzearen ondorioz izaera hori hartzen dutenak foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz izapidetuko dira.

Laugarren xedapen iragankorra.

Foru lege honen 17. artikuluan merkataritzarako ezarritako erreserbak ez aplikatzeko arrazoi bakarra izanen da honako hau: foru lege hau indarrean sartu aurretik kasuan kasuko unitateari dagokion antolamendurako tresnan mugatu izana etxebizitzaren gehieneko kopurua eta erabilera xehakatuaren eraikigarritasunak.

Azken xedapenetako lehena.

Nafarroako Gobernuari eta kasu bakoitzean eskumena duten departamentuei baimena emanen zaie foru lege honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko behar diren egintzak eta xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bigarrena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

1. Indargabetuta gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

2. Bereziki, indargabetuta gelditzen dira Merkataritza ez-sedentarioari buruzko uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legea, Nafarroan merkataritza arautzen

duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea, eta barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzen dituen apirilaren 6ko 6/2010 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria.